

TOKIKO
IRAUNKORTASUNAREN
DIAGNOSTIKOA

ABADIÑO

2006ko uztailak 12

DIAGNOSTIKOAREN LANTZEAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Abadiñoko Udala

Javier Uriarte Barinaga. Alkatea
Sonia Rodríguez Velasco. Alkateordea
M^a Angeles Larrauri Lasuen. Zinegotzia
Mikel Garaizabal Iturriagaetxebarria. Zinegotzia
Matías Sendino Campo. Zinegotzia
Arantza Aramburu Derteano. Zinegotzia
Jose Luis Navarro Donaire. Zinegotzia
Antonio Serrano Chamizo. Zinegotzia
Margarita Meñika Basterretxea. Zinegotzia
Jon Peli Larruskain Urigoitia. Zinegotzia
Jose Luis Pérez Pérez. Zinegotzia
Ángel Rodrigo Izquierdo. Zinegotzia
Fernando Castillo Roríguez. Zinegotzia

Kepa Larrabeiti Menika. Idazkaria
Javier Areso. Arkitektoa
Iñaki Mendizábal. Aparejadorea

Beste Administrazio eta Erakundeak

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila
Errepideen Zuzendaritza Orokorra
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketarako eta Ingurumen Saila
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
Biodibertsitate Zuzendaritza
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza
Uraren Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Energiaren Euskal Erakundea
Iberdrola SA
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA

Julen Rekondo. Teknikaria
Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
Ibon Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria
Olatz Errazkin. Teknikaria

AURKIBIDEA

O. SARRERA.....	4
0.1. UDALERRIA ETA TOKIKO AGENDA 21.....	4
0.2. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA.....	5
1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA.....	7
2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA.....	11
3. GIZARTE-EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA.....	19
4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA.....	24
4.1. INGURU FISIKOA ETA NATURALA.....	24
4.2. LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA PLANIFIKAZIOA.....	36
4.3. HIRIGINTZA-PLANEAMENDUKO EGITURA ETA EZAUGARRIAK.....	39
4.4. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK.....	43
5. INGURUMEN SEKTOREAK.....	46
5.1. URAREN ZIKLO INTEGRALA.....	46
5.2. KALITATE ATMOSFERIKOA ETA AKUSTIKOA.....	49
5.3. ENERGIA.....	51
5.4. LURZORUA.....	53
5.5. HONDAKINEN KUDEAKETA.....	56
5.6. INCIDENCIA Y RIESGO AMBIENTAL DE ACTIVIDADES.....	60
6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA.....	66
6.1. GIZARTEA ETA HIRITARREN PARTE-HARTZEA.....	66
6.2. INGURUMEN INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.....	74
6.3. UDAL-EGITURA.....	74
6.4. UDALEKO INGURUMEN KUDEAKETA.....	76
7. ABADIÑOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA.....	77

0. SARRERA

0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21

Tokiko Agenda 21 kontzeptua Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) sortu zen, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurreko Goi bileran". Gailur horretan "Agenda 21" (edo Programa 21) onartu zen, Garapen Iraunkorra lortzeko bidean ekintza-plan orokorra. Agenda 21en 28. atalak "Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak" izena du eta hauxe dio:

- *1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako "Tokiko Agenda 21"ri buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan.*
- *Herri-agintari bakoitzak elkarrizketa ezarri behar du bere komunitatearekin, gizarte-erakundeekin eta enpresa pribatuekin eta Tokiko Agenda 21 zabaldu behar du.*

EB-ko Ingurumen Arloko VI. Ekintza Programak ere ("Garapen Iraunkorra lortzeko bidean") herri-agintariak animatzen ditu zentzu bereko ekimenak garatzeko (3. eta 5. kapituluak).

1994ko maiatzean, ICLEIk deituta (The International Council for Local Environmental Initiatives), 600 pertsona baino gehiago bildu ziren Danimarkako Aalborg hirian, besteren artean: Europako tokiko agintaritzetako ordezkariak, nazioarteko erakundeak, gobernu nazionalak, zentro zientifiko aholkulariak eta partikularrak. Europako Hiri Iraunkorren Lehen Biltzar honetan, Iraunkortasunera iristeko Hiri Europarren Gutuna heldu eta sinatu zen, egun, Aalborg-eko gutuna bezala ezagutzen dena.

Gutunean, atxikidura azaldu zutenen artean borondatea azaltzen zen Tokiko Ekimen Plana edo Tokiko Agenda 21 idazteko, honek ekimen eta estrategia bateratuak eskatzen zituen, modu honetan hiriak XXI. mendean iraunkortasunerantz eramanez.

Aalborg-eko gutuna hedatzeko lehen denbora bat pasa eta gero, beharrezkoa zen ekintzara pasatzea, eta horrela, Lisboan, 1996an, Iraunkortasunera iristeko Hiri eta Herrien Bigarren Biltzarra iragarri zen, non lanerako hamabi puntu adostu eta sakondu ziren Tokiko Agenda 21en idazteko prozesuan eta beraien ezarpenean. Urte berean, Istanbulen iragarritako Nazio Batuen Biltzarrak Gizakiaren Kokalekuaz (Habitat II) aritu zen, bertan pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubideaz eztabaidatu zen eta gizakien kokalekuen garapen iraunkorraz, honek Agenda 21ren printzipioak bere hartu zituen.

2000ko otsailean, Hannover-en izan zen Iraunkortasunari buruzko Europako Hiri eta Herrien III. Biltzarra, bertan 1400 pertsonak hartu zuten parte, autoritate nazionalen ordezkariak, eskualdekoak eta tokikoak, unibertsitateak eta Tokiko Agenda 21eko prozesuetan inplikaturik dauden beste hainbat entitatek.

2004ko ekainean, berrogeita bost herrialdeetako mila politikarik, teknikari adituek, gobernu kanpoko erakundeetako nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak Aalborg-eko Konpromisoak sinatu zituzten Aalborg+10 Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian. Aipatu Konpromiso horiek hiriko iraunkortasunaren arlo ezberdinei lotuta daude; eta tokiko gobernuak helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen lagundu behar dute 10 urte lehenago zehaztutako printzipioak finkatzeko.

Euskal eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako 3/98 Lege Orokorrak Udalerriek iraunkortasunean oinarritutako estrategiak hartzea onartzen du, beti ere gai urbano guztien inguruan ikuspuntu orokor bat izanaz.

Azken urteetan Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Saitetik batik bat Tokiko Agenda 21eko prozesuak sustatu dira euskal udalerrietan, zentzu honetan egin diren ekimenetatik honakoak nabarmendu daitezke:

- “Tokiko Agenden antolakuntzarako Gida Europarra” –ren Itzulpena, argitalpena eta banaketa.(ICLEI Gida)
- Urtero Udaletxeentzako diru-laguntza deialdiak Ingurumen Ekimen Planak eta prozesuak sustatzeko.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak Sustatzeko Programa 2000-2003”.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu eta ezartzeko Gida praktikoaren” argitalpena.
- EUDEL-ek, IHOBE-k eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako UDALTALDE 21 Proiektua; EAEko 9 udalerritan Tokiko Agenda 21en gaineko proiektu-piloteak ezartzeko.
- UDALTALDE 21 eskualde mailako Lan Taldeak garatzea; Mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiekin lankidetzan.
- UDALSAREA 21en edo Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen osaketa, EUDELeK, IHOBE-Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta honezkero tokiko Ekintza Plana duten 66 udalerrik osatzen dutena.

Gaur egun, 200 udalerrri baino gehiago eta 22 UDALTALDE 21 inplikaturik daude Tokiko Agenda 21en ezarpenean. Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategian (2002-2020) 2006. urterako ondoko konpromisoa biltzen da: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea da, banaka edo eskualdeka.

2004ko Azaroan Durangoko Merindateko Amankomunazgoak, Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa den IHOBek eta Bizkaiko Foru Aldundiak kolaborazio hitzarmena sinatu zuten DURANGALDEKO UDALTALDE 21 lan taldea martxan jartzearren. Lan taldea ondoko udalerriez osatua aurkitzen da: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, **Izurtza**, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar. Garai beranduago barneratu zen lan talde honetan.

0.2. Diagnostikoaren aurkezpena

Aurkezten den Iraunkortasunerako Diagnosi hau pertsona askoren arteko lanaren ondorio bat da, administrazio ezberdinen, enpresa publiko zein pribatuen, eta entitate nola herritarren lankidetzarekin batera. Diagnosi hau 2005ko abenduaren eta 2006ko martxoa bitartean egin da.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoak, iraunkortasun irizpide eta modu integratzaile batean aztertzen du egungo egoera. Analisi honetatik abiatuz, Ingurumen Diagnostikoa egiten da, eta hau Ingurumen Ekintza Plana definitu eta eraikiko duen oinarria izango da. Baina Planak ez du espero den jo muga bakarrik izan behar, baizik eta Tokiko Agenda 21aren prozesuaren abiapuntua ere beharko du izan.

Tokiko Agenda 21 konpromisozko dokumentu bat nola gerorako proiektu bat izango da, eta bertan gobernariak, herritarrak eta biltzen diren entitateak, beraien Udalerriko garapen iraunkorra lortzearren oinarriak jarriko dituzte.

1987an iraunkortasunaren kontzeptua iritzi publikoari aurkeztu zitzaion lehendabizikoz. Gro Harlem Bruntland andereak koordinaturiko informe batean, Ingurumen eta Garapenaren Munduko Batzordeak eskatuta, gizateriaren geroa garapen iraunkorrari erabat atxikita azaltzen da, hau da, gizarteak egungo beren beharrak ase behar baditu ere ondorengo generazioen beharrak konprometitu gabe izan beharko da.

Ondoko Diagnosi hau kapitulu ezberdinetan zatikatzen da ondoko gai esparruen arabera:

- Demografia eta biztanleria
- Ekonomia eta enplegua
- Gizarte ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna
- Lurraldea, antolaketa eta hirigintza
- Ingurugiro sektoreak
- Udal egitura eta udalerriko gizartea

Azken Kapitulan, gai esparru bakoitzeko ondorioak aurkezten dira.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa *DURANGALDEKO UDALTALDE 21* Lan Taldeak egin du Udaleko arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuen teknikarien eta enpresa publiko zein pribatuen elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea eta *INGURUNE S.L.* eta *PROSPEKTIKER S.A.* Aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da.

1. DEMOGRAFÍA ETA BIZTANLERIA

1.1 Biztanleriaren eboluzioa

Abadiñoako Elizateko udalerrria Durangaldeko eskualdearen erdi-hegoaldean kokatzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hego-ekialdean. Iparraldera Garairekin du muga, Ipar ekialdera Berriz-Olaketarekin, Hego-mendebaldera Dimarekin, Mendebaldera Mañaria eta Izurtzarekin eta Ipar-mendebaldera Iurreta eta Durangorekin.

36,26 Km²-tako azalera batekin, 2005. urtean Abadiñoak 7.129 pertsonako biztanleria zeukan, eta honek 194,78bizt./km² dentsitate bat ematen du, herrigunean nabarmen handitzen den dentsitatea. Eskualdeko herririk handiena da hedaduran Elorrioren atzetik, eta bere biztanleriaren dentsitatea nahiko altua da, eta hala ere eskualdeko ertaineko baloreen azpitik dago, balore horiek Durangok aurkezten duen dentsitate altuagatik oso baldintzatua baitaude..

Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea. 2001

Udalerrria	Biztanleak		Km ²	Dentsitatea
	Kopurua	% Durangald.		
Abadiño	6.843	12,7%	36,26	188,7
Atxondo	1.427	2,6%	23,41	60,9
Berriz	4.312	8,1%	29,95	143,9
Durango	25.003	46,6%	15,1	1.655,8
Elorrio	7.157	13,3%	37,40	191,3
Garai	252	0,4%	7,1	35,4
Iurreta	4.144	7,7%	18,48	224,2
Izurtza	266	0,5%	4,32	61,5
Mañaria	453	0,8%	17,63	25,6
Otxandio	1.017	1,9%	12,40	82,0
Zaldibar	2.877	5,4%	11,8	243,8
Durangaldeko Udaltalde 21	53.571	100%	213,85	250,5
BIZKAIA	1.122.637		2.217,0	506,3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

XX. mendeko azken 15 urteetan Abadiñoak izan duen biztanleriaren bilakaera eskualdekoaren antzekoa izan da. Biztanleriaren bilakaerak biztanleriaren beherapen motel baina jarrai bat adierazten du. Eskualdean 1986-2001 urte tartean biztanleriaren bilakaera positibo bat aurkezten duen udalerrri bakarra Berriz da, eta hala ere ez da oso esanguratsua. Azken urteetan berreskurapen motel bat ikusten da, 90 hamarkadako baloreak berreskuratuz.

Biztanleriaren bilakaera

Udalerrria	1986	1991	1996	1999	2001
Abadiño	7136	7079	6855	6844	6.843
Atxondo	1504	1509	1487	1462	1.427
Berriz	4197	4244	4139	4159	4.312
Durango	27152	22710	23970	24781	25.003
Elorrio	7768	7438	7303	7194	7.157
Garai	245	253	247	248	252

lurreta	(Durangorekin)	4883	4507	4308	4.144
Izurtza		276	271	274	266
Mañaria		525	505	469	453
Otxandio		1200	1123	1038	1.017
Zaldibar		3308	3137	3018	2.877
Durungaldeko Udaltalde 21		53.311	53.152	53.307	53.640

Iturria: EUSTAT eta Bizkaiko Foru Aldundiaren datuetan oinarrituta

Hala ere esan beharra dago, beti ere Eustat eta Udalaren datuetan oinarrituz, XXI. Mendearen hasieratik biztanleria hasiz joan dela, duela 20 urteko baloreetara iritsiz. Azken urteetan Abadiñoako biztanleria hurrengo kopuruetan ibili da:

Urtea	2001	2002	2003	2004	2005
Biztanleak	6.843	6.975	7.016	-	7.129

1.2. Biztanleriaren egitura

2001ean, Abadiñoako biztanleriaren egitura ondorengo moduan zegoen banatuta: biztanleriaren %18,8 19 urtetik beherako pertsonak ziren, %69,2 adinen ertaineko multzoan zeuden; hots, 20 eta 64 urte bitartean, eta %18,8 65 urtetik gorako taldean zegoen. "0 urtetik beherako biztanleria ia 17 puntutan jaitsi da 1986-2001 epean, eta aldiz 65 urtetik gorakoa ia 6 puntutan hasi da epe berean.

Biztanleriaren egitura adin-multzoen arabera. Inquuruarekiko konparaketa (%)

Urtea	Adina	Izurtza	Bizkaia
1986	0-19	35,6	29,5
	20-64	57,9	60
	>64	6,5	10,4
1991	0-19	31,6	25,1
	20-64	60,5	62,1
	>64	7,9	12,7
1996	0-19	24,8	20,3
	20-64	64,7	63,9
	>64	10,5	15,7
2001	0-19	18,8	16,6
	20-64	69,2	64,8
	>64	12,0	18,5

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Bilakaerak azken urteetan emandako etengabeko zahartze bat adierazten du, Durungaldeko eskualdean eta orokorrean Bizkaian gertatu den bezala. Hala ere udalerriak Bizkaia baino biztanleria zerbait gazteagoa du, biztanle gazte gehiagorekin (0-19) eta nagusi gutxiagorekin (65 edo gehiago).

Sexuaren araberako banaketari dagokionean, bi generoen artean egoera oso orekatu baten aurrean aurkitzen gara, bakarrik gizonezkoen aldeko %0,1eko desberdintasunarekin.

Biztanleria Sexuaren arabera 31-12-2001

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Abadiño	3.521	3.495	7.016

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

1.3. Berezko mugimendua eta migratzailea

EUSTATEk emandako datuen arabera, 1996-2003 epean udalerriko jaiotze-kopurua 1996eko 44etatik 2003 urteko 65etara igarotzen da, hau da, igotzeko joera duen jarrera irregular bat, eta epe berdinean heriotza-kopuruaren datuek antzeko joera ematen dute, 48etatik 57etara igarotzen da.

Jaiotze tasa 9,2koa da eta heriotza tasa aldiz 8,12, eta horrek berezko mugimenduaren balore positiboak izatea eragiten du 1996-2003 urte tartean. Hau ez da urte guztietan ematen, eta horrek joera zehatzak ematea zaildu egiten du.

Biztanleriaren Mugimendu Naturala

Urteak	Berezko mugimendua		
	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa
1996	44	48	-4
1997	50	38	12
1998	43	44	-1
1999	44	40	4
2000	58	56	2
2001	64	44	20
2002	63	47	16
2003	65	57	8

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Mugimendu migratzaileaz ari garenean administratiboki definituta dauden bi eremu geografikoren artean ematen den bizileku ohikoaren aldaketaz ari gara; zentzu horretan, migrazioak beti bi ekinbide ditu sortzez, emigrazioa edo bizileku duen lekua bertan behera uztea, eta inmigrazioa edo beste zonalde baten bizitzen hastea. Barne migrazioa abiapuntua eta helmuga EAEko udalerrri banatan duenean deitzen zaio. Kanpo migrazioak dira EAE eta Estatuaren edo atzerriaren artean ematen direnean mugimenduak.

1999-2003 epean gertatu mugimendu migratzaileari dagokionez, inmigrazioa emigrazioa baino altuagoa da; beraz, migrazio-saldoa edo sarreren eta irteeren arteko aldea positiboa da, +32 epe Osoan. Barne migrazio mugimendua aldiz negatiboa da. Orokorrean datuak asko aldatzen dira denboran zehar, baina Izurtzan egonkortasun batez hitz egin dezakegu, biztanleria indizeek horrela erakusten duten bezala.

Migrazioak, moten arabera.

Urtea	Inmigrazioa	Emigrazioa	Kanpoko mig. saldoa	Barne-miq. helburua	Barne-miq. jatorria	Barne-miq. saldoa	Udalerrri barruko migrazioak
1996	10	39	-29	104	165	-61	174
1997	30	23	7	126	139	-13	64
1998	29	42	-13	131	133	-3	115
1999	41	38	3	117	154	-37	109
2000	36	30	6	120	140	-20	119
2001	68	25	43	207	143	64	128

2002	72	50	22	200	214	-14	189
2003	52	59	-7	217	171	46	206

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

1.4. Hiri-nukleoak eta biztanleriaren espazio banaketa


Abadiñoko udalerria hurrengo auzoek osatzen dute: Amaitermin, Astola, Gaztelua, Gerediaga, Lebario, Irazola, Traña-Matiena, Mendiola, Muntsaratz, Sagasta, Urkiola eta Zelaieta. Auzo horien barruan urbanizazio maila ezberdinak aurki daitezke, oso kutsu hiritarra dutenetatik (Traña-Matiena eta Zelaieta) landa izaera dutenetaraino (Amaitermin, Sagasta, Gerediaga, Gaztelua, Urkiola y Mendiola)

2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA

2.1 Jarduera eta egitura ekonomikoa

2001. urtean, sektore ekonomikoen arabera biztanleria landuna ondorengo moduan zegoen banatuta:


16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, jarduera-adarren arabera, 2001



Industria sektorea da zalantzarik gabe nagusi biztanleria okupatzeko garaian, zerbitzuen sektoreagatik jarraitua. Eraikuntzaren sektoreak ez du garrantzi handirik, eta lehenengo sektorea ia ez du presentziarik. Egitura hau ia bere osotasunean errepikatzen da eskualde mailan, eta goragoko mailetan ere errepikatzen da, nahiz eta zerbitzuen sektoreak garrantzi apur bat gehiago duen.

Jarduera-adarren arabera establezimenduei dagokienez, 2004an 617 establezimendu ikus zitezkeen, eta establezimenduen %41,9 merkataritza, ostalaritza eta garraioen alorrari zegokion; %10,2 Zerbitzuen bestelako jarduerekin zerikusia zutenak, Industria eta energiari lotutakoak %21,8 ziren; %12,9 Bankua, aseguru-etxeak eta enpresak izeneko taldeari zegokion eta gainerako %12,9 Eraikuntzakoak.

Establezimenduak jarduera-adarren arabera, 2004



Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

2000. urteko udalerriko balio erantsiaren egitura kontuan hartuz gero, Industriaren sektorea da produkzio sektore klabea eta udalerriri aberastasun gehien ematen diona, beraren %73,4 delarik, beste edozein sektorearen gainetik.

Udalerriko Balio erantsiaren egitura. 2000. %.

	Lehen Sekt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Abadiño	0,7	73,4	9,4	16,4

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Beraz, Abadiñon herriko ekonomia industrian oinarritzen dela ondoriozta dezakegu, nahiz eta populazioaren gehiengoak zerbitzuen sektorean lan egiten duen. Horren esanahia beraz udalerriko biztanle askok udalerrian bertan ez dutela lanik egiten esan daiteke, eta baita Abadiño kanpoko langile industrialak jasotzen dituen herria dela.

Abadiñon, 2001ean, biztanleria aktiboa (aktiboak/biztanleria osoa) 3.295 pertsonatakoa zen, hau da, biztanleria osoaren %48,1 Durangaldea eskualdekoa baino (%46,5) a eta Bizkaiko Lurralde Historikokoa (%45,4) baino aktibitate-tasa altuagoa.

Biztanleria jardueraren arabera. Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE). 2001

Udalerria	Guztira	Aktiboak LANE					Inaktiboak LANE
		Guztira	Lana dutenak LANE	Langabetuak LANE			
				Guztira	Lehenengo lana	Lan egin dute	
Abadiño	6.843	3.295	3.033	262	56	206	3.548
Durangaldea	53.751	25.004	22.971	2033	408	1.625	28.747
Bizkaia	1.122.637	509.869	441.967	67.902	16.943	50.959	612.768

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

2.2. Sektore ekonomikoak**Lehen sektorea**

XIX mende bukaeran lehen sektoreko ohiko nagusitasunak bidea uzten dio udalerria pixkana egituratzen ari den garapen industrial eta hiritar bati. Garapen horren inguruan gizarte-elkarteak bildu eta haraneko lur onenak okupatzen dira, nekazaritzako jarduera bigarren plano batean geratuz. 2000. urtean, lehen sektoreak udalerrian sortutako balio erantsia erabat testimoniala da, %1ra baino ez iritsiz, Durangaldeko Eskualdean eta orokorrean Bizkaiko lurralde historikoan ematen diren baloreen antzeko datuak.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ustiatutako azalerari dagokionez, 1999. urtean Abadiñon kokatutako 262 ustiategi zentsatuetatik %63,3 abeltzaintzarekikoak ziren, %35,8 abeltzaintzarik gabekoak eta 2 lurrik gabeko ustiategiak ziren. Bestalde, Mañarian landa-erabileretara bideratutako guztizko azalera 2.896 Ha ziren.

Ustiapen zentsatuak eta guztizko azalera. 1999

Lurraldea	Guztira		Abeltzaintzarekin		Abeltzaintzarik gabe		Lurrik gabeko ustiategiak
	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	
Abadiño	262	2.896	166	1.053	94	1.843	2
Durangaldea	1.738	16.543	903	6843	825	9.698	10
Bizkaia	20.333	171.712	9.398	78.604	10.787	93.109	148

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Bigarren sektorea

2001ean Abadiñoako industria-sektoreak udalerriko biztanleria landunaren %48,6 biltzen zuen. Sektore honek udal ekonomian duen berariazko garrantzia handia izan arren, 2000. urtean guztizko balio erantsiaren %78,4 zekarren, bere garrantzia gutxituz joan da Zerbitzuen sektorearen mesederako. Egitura hau eskualdean ematen denaren oso antzekoa da, baina hirugarren sektorearen garrantzia handiagoa da Bizkaikoarekin eta Euskal Autonomi Erkidegokoarekin konparatzen badugu.

16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, jarduera-adarren arabera. 2001

Eremua	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Abadiño	3.033	54	1.475	234	1.270
Durangoaldea	22.971	307	10.087	1274	11.303
Bizkaia	441.967	6.673	104.464	41.002	289.828

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, jarduera-adarren arabera. 2001 (%)

Eremua	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Abadiño	3.033	1,78	48,63	7,71	41,78
Durangoaldea	22.971	1,33	43,91	2,92	49,20
Bizkaia	441.967	1,50	23,63	9,27	65,57

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Abadiñoan, egungo industria enpresa txiki eta ertainak dira gehienbat, eta bakarrik bi enpresak heltzen dira 300n langile inguru izatera Estampaciones Bizkaia (475 langile) eta Rothenberger Super-ego Tools (373 langile). Eskualdean gertatzen den bezala, galdaketa, forja-lan, lanabes makina eta metalaren eraldaketaren sektorean espezializatutako industria da batez ere. Hauetatik askok autoentzako osagaiak ekoizten dituzte.

Izena	Jarduera	Langile-kopurua
ABAMOTOR, S.L.	Gasolina eta diesel motoreen, motoponpen eta ekipo elektrogenoaren fabrikazioa.	49
ACEROS IMS INT., S.A.	Altzairu-ebaketa. Barra-zuzenketa. Altzairu berezien, ijetzien, kalibratuen eta forjatuen merkaturatzea.	20
AGRECO, S.L.	Galdaraqintza arina eta ertaina: metalezko deposituak, tutuak etab. Galdaketako hondarrak berriro sortzeko elementuen eraikuntza.	10
AL-KO RECORD, S.A.	Turismoetarako, kamioietarako, industria ibilgailuetarako motelgailu hidraulikoen fabrikazioa eta trenbideetarako motelgailu hidrauliko bereziarena.	240
ATXA-TXIKI, S.A.	Harrobiaren ustiapena: kararria, leqarrak, hartxintxarrak, manposteria, todo-uno, eta abar. Hormigoien fabrikazioa. Hormigoi aurrefabrikatua.	15
BASKONIA BAVARIA, S.A.	Nekazaritzako traktoreetarako osagarriak. Nekazaritzako eta obra publikoetako makineriarako babes-egiturak.	26
BASOPRESS, S.A.	Sukaldeko altzarien osagarrien fabrikazioa.	10
C. FLORES Y PLANTAS, S.L.	Berdequneak (parkeak, futbol-zelaiak, autopistetako erdibitzaileak) eta haztegiak zaintzea eta berriz ereitea.	16
CALDERERIA IBAIZABAL, S.A.	Galdaraqintzako edozein motatako lanak: kuboak, defentsak, plataformak, eta abar. Soldatze-lanak. Xaflen tolestatzea 3 m-ko luzera eta 48 mm-ko lodiera artekoarekin.	12
CALEFACCIONES Y FONTANERIA URTIAGA, S.L.	Berokuntza eta aire egokituko instalazioak. Igeltserotza-lanak.	11

CARBUREIBAR, S.A.	Ibilgailu automobiletarako motore-piezen fabrikazioa: huts-ponpak, gasolina-ponpak, tximeleta-balbulak, ihes-gasen balbulak, iragazki-estalkiak, eta abar.	249
CELESA, S.A.	Ebaketa-erreminten merkaturatzea. Neurriera egindako bandako zerren soldadura.	25
CONSTRUCCIONES LASUEN, S.A.	Eraikinen eta obra publikoen eraikuntza. Asfaltaketak, urbanizazioak eta zoladurak.	40
CONSTRUCCIONES METALICAS BOST, S.A.L.	Galdaraqintza-lanak oro har.	10
CURVATUBO 2000, S.L.	Tutuaren ebaketa eta kurbaketa. Estanpazio metalikoa, mantenimenduko eta ekoizpeneko soldadura. Egitura konbinatu arinak.	10
DINALOT, S.A.	Piezen mekanizazioa forjaketako landugabeetatik abiatuta, estrusioa, dekoletajea, qaldaketa, estanpazioa etab. Automobilaren, defentsaren eta abarren sektoreetarako piezen fabrikazioa.	45
DURANGO SERBITZUAK, S.L.	Kalitate-sistemen ezarpena. Ekipoak kalibratzeko prozesuak. Inqurumen-sistemak. Laneko arriskuen prebentzioa. Aholkularitza industria-antolamenduan. Enpresentzako zerbitzu orokorrak. Prestakuntza espezializatua.	10
EL MATERIAL AISLANTE, S.A.	Plastikoen transformazioa. Dentsitate handi eta txikiko polibinilo-klorurozko eta polietilenoazko tutu uzkuak eta lauen fabrikazioa, instalazio elektrikoetarako, dreñajeetarako, ur-hartuneetarako, ureztaketarako, eta abarretarako.	38
ELECTRICIDAD ANBOTO, S.L.	Industriako instalazio elektrikoak, bobinaketak, kableaketak etab. Makinen automatizazioa. Industria-elektronika	15
ELECTRODOMESTICOS JATA, S.A.	Etxetresna elektriko txikien fabrikazioa: miniqarbigailuak, plantxak, kafegailuak, parrilak, estufak, eta abar.	44
ELEKTROTABIRA, S.L.	Instalazio elektrikoak. Sare informatikoen instalazioak, 9 software eta hardwareren instalazioa. Mantenimendu informatikoa eta elektrikoa.	10
ESTAMPACIONES BIZKAIA, S.A.	Xaflaren hotzeko estanpazioa eta enbutizioa. Doitasunezko ebaketa. Automoziorako piezen fabrikazioa: transmioko karkasak, motelqailuaren euskarriak, balaztaren platerak eta kamerak, olio-karerrak, balantzinen tapak, karrozeriako piezak etab. Nekazaritzako makineriarako piezen, hozkailuen, iqerilekueetako iraqazkien eta abarren fabrikazioa. Trokelen eta tresnen eraikuntza.	475
ESTAMPACIONES IRU, S.A.L.	Altzairuzko, letoizko, aluminiozko eta abarrezko txaparen estanpazioa, puntzonaketa eta enbutizioa, planoaren edo laqinaren arabera.	60
ESTAMPACIONES METALICAS VIALSA, S.L.	Metalezko estanpazioa, piezen ebaketa eta trokelaketa planoaren arabera. Azpimultzoen muntaia.	10
ESTRUCTURAS ARTISTICAS DE RESINAS, S.A.	Plastikoen transformazioa. Beira-zuntzarekin indartutako poliester-erretxinen elaborazioa. Beirak jartzeko eta estalkietarako plaka zeharrarqitsuen fabrikazioa; kamioietarako karrozeriak.	13
FABRICACION DE EMBRAGUES MULTIPLES EGRO, S.L.	Industriako eta nekazaritzako ibilqailuetarako diskoen eta enbrage-mekanismoen fabrikazioa.	39
FUNDICIONES GARBI, S.A.	1 kg-tik 100 kg-ra bitarteko piezen qaldaketa burdina qris eta nodularrean. Piezen fabrikazioa nekazaritzako makineriaren, makina-erremintaren, obra publikoen, balbulagintzaren, iqoqailuen eta beste zenbaiten sektoreetarako.	120
FUNDICIONES METALICAS SAN VICENTE, S.COOP.LTDA.	Burdina nodular eta qrisaren qaldaketa (serie laburrak). Moldeaketa mekanikoa eta eskuzkoa.	105
GEACE-CICLOS, S.A.	Bizikleta ziklomotor eta osaqaien fabrikazioa.	65
GRAFICAS BERRIZ, S.L.	Arte grafikoak. Inprimaketa eta koadernaketa lanak. Liburuak, katalogoak, liburuak, equteqiak, kartelak, karpetak, postalak, taloiteqiak, jokoak, etiketak, txartelak, kartazalak.	16
GUIBEMA, S.L.	Mekanizazio-zentroetako piezen mekanizazioa. Serieko piezak eta prototipoak.	12
HEGAZ, S.A.	Elektrifikazioko metalezko egituren fabrikazioa: qoi-tentsioko dorreak, burdinbidea, obra publikoak, eta abar. Metalezko egituren fabrikazioa etxeqintzarako.	34
INDUSTRIAS ALGA, S.A.	Automozioaren eta balbulen sektoreetarako osaqarren fabrikazioa: abiorako koroak, kamioein atzeko zubietarako errefortzu-eraztunak, asentu-eraztunak balbuletarako eta bridetarako, eta abar.	98

INDUSTRIAS BERRY, S.A.	Alanbrearen eta zumitzaren deribatuen fabrikazioa: malgukiak, besarkaderak, hagatxoak, eta abar. Pieza txikien estanzazioa. Multzo soldatuak.	105
INDUSTRIAS LAIP, S.A.	Makina-erremintarako erreminta-etxeen fabrikazioa, mandrino hedagarriak, murrizketako konoak, mandrinatzeko barrak, pintzak, mandrino pintza-etxeak, fresatzeko makinenzako qailuak eta azkar aldatzeko barauts-etxeak, ardatz fresa-etxeak, zenbakizko kontrolako tresnak eta abar.	49
INYECTADOS METALICOS Y PLASTICOS INMEPLAS, S.A.L.	Mota guztietako material plastikoaren galdaketa, injekzio eta estrusio bidez. Burdinazkoa ez den galdaketa aluminioaren eta zamakaren injekzio bidez, estanzazioa prentsan, pieza metalikoen muntaia eta abar. Sukaldeko eta bainugelako altzarietarako hainbat osagarriren fabrikazioa, planoaren arabera piezak, plastikozkoak, aluminiozkoak, zamakezkoak eta abar. Ate korrigarrien eta tolesgarrien profileria burdinaria eta guzti.	12
INYECTAMETAL, S.A.	Aluminiozko injekziozko galdaketa, automozio eta etxetresna elektrikoaren sektorerako piezak.	286
LAMINADOS ESPECIALES, S.A.	Altzairu berezien hotzetako ijezketa: karbono-altzairuzko eta altzairu aleatuzko zumitzak.	42
LAVADEROS MECANICOS BILBAINOS, S.L.	Industria-garbitzeko kotoia eta trapeak fabrikatzea. Zelulosa eta garbitze-osagarriak merkaturatzea.	13
LINEKER, S.A.	Planoaren arabera mekanizazioa CNC makinaren bidez.	11
LUSARO MARKCOLOR, S.L.	Markatzeko eta kodetzeko materialaren banaketa.	8
MATIENA-FEPA, S.L.	Torloju berezien estanzazioa. Pieza txikien forjaketak. Alanbrea hariztatzea eta tolestea. Torlojuak, berno, buloi, gako, estribo eta, kilo bateko deformazio arteko edozein motatako pieza forjatu fabrikatzea.	20
MATRICERIA URIEN, S.L.	Piezen mekanizazioa CNC bidez.	14
MECANIZADOS ALZA, S.L.	Piezen mekanizazioa.	10
MECANIZADOS ASTOLA, S.L.	Oro har makinaren konponketa. Mota guztietako piezen mekanizazioa planoaren edo laqinaren arabera. Prentsen eta zulatzeko makinaren fabrikazioa.	14
MECANIZADOS FIBE, S.L.	Mota guztietako piezen mekanizazioa oro har, planoaren edo laqinaren arabera.	11
MECANIZADOS IKETZ, S.L.	Pieza metalikoen mekanizazioa oro har, automoziorako eta likidoen kondukziorako.	76
METAL PERFORMERS, S.A.	Piezen mekanizazioa CNC bidez.	32
MINTEGUI, S.L.	Zurezko enbalaje, palet, kaiola eta abarren fabrikazioa.	10
PARQUES Y JARDINES DE ABADIANO, S.A.	Txaletetan, urbanizazioetan, golf-zelaietan eta abarretan jardinak egitea. Paisaiaren eta inquruqiroaren inpaktuari loturiko obrak.	40
PUSKA PNEUMATIC, S.A.	Pistoi, paleta eta torlojozko konpresoreen fabrikazioa; alternatiboak 40 HP arte, birakari paletadunak 40 HP arte, birakari torlojodunak 270 HP arte.	69
ROTHENBERGER SUPER-EGO TOOLS, S.A.	Eskuzko erreminten fabrikazioa, iturgintzarako.	317
S.A. DE TUERCAS	Azkoinen eta pieza berezien fabrikazioa berotako estanzazio bidez. Azkoinak industri ibilqailuen qurpiletarako, errodamendu-eraztunetarako, engranajeak, enbrage-nukleoak eta abar.	93
SERVELAN, S.L.	Makineria bereziaren diseinua eta delineaizioa, eskarien arabera, honako alor hauetan: mekanizazioa, mihiztadura, manipulazioa, kontrola, entsegu dinamikoak, soldadura, errematxaketa eta abar.	4
SURDRY, S.L.	Eliqaqaien industriarako makineriaren fabrikazioa: esterilizaziorako autoklabeak.	16
TALLERES ASCA, S.L.	Galdaketako eredu eta tresnen fabrikazioa.	10
TALLERES UNAMUNZAGA, S.A.	Trokelqintza. Piezen hotzetako estanzazioa eta mekanizazioa.	27
TECLAPLAST, S.A.L.	Mintzeko teklatuaren fabrikazioa. Serigrafia-zerbitzuak. Karatulak.	13
TRANSMISIONES LA MAGDALENA, S.L.	Nekazaritzako transmisioen eta osagarrien fabrikazioa.	48

VIZCAINA DE ELECTRIFICACION DOMESTICA. S.A.	Zurezko altzarien fabrikazioa sukaldarako eta bainu-gelarako.	15
--	---	----

Iturria: Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa. 2006ko Martxo

Hirugarren sektorea

Hirugarren sektoreak garrantzi handia hartu du 70. hamarkadatik aurrera, bai biztanleriari dagokionean eta baita jarduera ekonomikoari dagokionean ere.

Jardueraren arabera establezimenduen datuen arabera hauetako %65a zerbitzuen sektorerantzuzentzen dira, azken urteetan indarra gehituz joan den sektorea izanik. Azpisektoreen artean "Merkataritza, ostalaritza eta garraioek sektorea da nagusi, gainontzeko lurralde eremutan gertatzen den bezala.

Establezimenduak jarduera adarraren arabera. 2003.

	GUZTIRA		Industria eta energia	Eraikuntza	Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	Bankua, aseguru-etxeak eta zerbitzuak enpresei	Beste Zerbitzuak
	Nº.	Enpleg.	Nº.	Nº.	Nº.	Nº.	Nº.
Abadiño	617	5.453	135	80	259	80	63
Durangoaldea	4.039	25.146	649	419	1.711	642	618
Bizkaia	89.589	412.019	6.694	11.268	40.428	18.318	12.881

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

2.3. Lan-merkatua, enplegua eta gizarte-bazterketa

2001ean Abadiñon bizi ziren 6.843 pertsonatik %48,1 aktiboak ziren (16 eta 64 urte bitartekoak) eta biztanleria ez-aktiboa; hots, haurrak, etxeandreak edo pentsiodunak bezala ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean esku-hartzen ez duten hiritarrak biztanleriaren %51,9 zen.

Langabeziaren azterketa eta eboluzioa

2002. urtetik langabetuaren definizioa aldatu egiten da, Europar Batasuneko araudiari jarraiki. Urte horretatik aurrera langabetu bezala sailkatzeko aurrez ezarrita zeuden irizpideez gain, azken lau asteetan lana bilatzeko aktibitatearen bat egitea beharrezkoa litzateke. Ez da aktibitate bat bezala ikusten lan eskakizun agiria berriztatzea edo informaziorako lan bulego publikoarekin harremanetan jartzea.

Udalerriko langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %5,8a zen 2005ean. Indize hau, aurreko bi urtetakoa baino handiagoa da, baina azken 10 urteotako garapena aztertuz gero, egoera nahiko hobetu dela ikus dezakegu, azken urteetan tarte guzti horren daturik hoberenak ematen direlarik. Garapen hau eskualdekoaren oso antzekoa da, baina langabezia-indize altu samarragoekin, eta oso altuak Bizkaia eta EAeko orokorrarekin alderatzen badugu.

Langabeziaren urteroko eboluzioa 1997-2005 (Balore absolutuak)

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Abadiño	290	234	193	192	188	171	177	166	191
Durangoaldea	2.055	1.697	1.430	1284	1.275	1.196	1.214	1.226	1.502
Bizkaia	62.206	53.652	48.183	45.539	42.794	43.236	43.915	41.776	47.915
E.A.E.	109.367	93.596	82.779	77.153	73.726	75.596	74.791	71.620	83.390

Iturria: INEM-Egailan

Langabeziaren urteroko eboluzioa 1997-2005 (%)

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Abadiño	10,0%	8,0%	6,6%	6,6%	6,5%	5,9%	5,4%	5,0%	5,8%
Durangoaldea	9,0%	7,5%	6,3%	5,6%	5,6%	5,3%	4,8%	4,9%	6,0%
Bizkaia	13,1%	11,3%	10,1%	9,6%	9,0%	9,1%	8,6%	8,2%	9,4%
E.A.E.	12,2%	10,4%	9,2%	8,6%	8,2%	8,4%	7,7%	7,3%	8,5%

Iturria: INEM-Egailan

Urte barneko eboluzioari dagokionean ez dira urtean zeharreko desberdintasun handiak ikusten, nahiz eta bigarren hiruhilabetean daturik baxuena emateko joera ikusten den, eta aldi berean balore altuenak urtearen bukaerara.

Langabeziaren hiruhilabeteko eboluzioa 2004-2005.(%)

Udalerrria	Langabezi Tasa 2004				Langabezi Tasa 2005			
	1ºHir.	2º	3º	4º	1º	2º	3º	4º
Abadiño	5,3%	4,4%	4,9%	5,0%	5,2%	5,4%	5,5%	5,8%

Iturria: INEM-Egailan

Adinaren eta generoaren arabera banaketari dagokionez, datuek banaketa desorekatu bat azaltzen dute emakumezkoen kalterako. 2005ean, langabezia- bulegoetan inskribatutako emakumezkoen kopurua 116 zen (%60,74), gizonezkoen kopurua 75 (%39,26) zen bitartean.

Adinaren arabera banaketari dagokionez, 25 eta 44 urte arteko pertsonak dira langabezia gehien kontzentratzen duten multzoak, gizonezko zein emakumezkoetan.

Erregistratutako langabezia sexuaren eta adinaren arabera. 2005

Udalerrria	Guztira	Gizonak			Emakumeak		
		<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45
Abadiño	191	18	32	25	12	67	37

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Erregistratutako langabezia sexuaren eta adinaren arabera. 2005. (%)

Udalerrria	Guztira	Gizonak			Emakumeak		
		<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45
Abadiño	191	24,00	42,66	33,33	10,34	57,75	31,89

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Sektore produktiboaren arabera biztanleria langabetuari dagokionez, aipatu beharra dago langabezia-tasa handienak zerbitzu eta industriaren sektoreetan kontzentratuak daudela, aipaturako sektoreak ere udalerrian enplegu gehien sortzen dutenak baitira.

Erregistratutako langabezia jarduera-sektorearen arabera. 2004

Udalerrria	Guztira	Sektoreak				
		Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurreko lanik gabe
Abadiño	191	2	68	8	103	10

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

P Erregistratutako langabezia jarduera-sektorearen arabera. 2004.(%)

Udalerrria	Guztira	Sektoreak				
		Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurreko lanik gabe
Abadiño	191	1,04	35,60	4,18	53,92	5,23

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

3. GIZARTE-EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA

3.1. Laguntza, ongizatea eta gizarte zerbitzuak

Oinarrizko Errenta (antzinako Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera)

Oinarrizko errenta laguntza izaera duen aldizkako laguntza ekonomikoa da, bizirauteko oinarrizko diru-sarrerak ez dituzten pertsonen beharrak asetzeko helburua du. Izaera subsidiarioa du eta egungo legedian aurreikusitako laguntza sozial eta ekonomikoen osagarria da, horiek erabili beharko dira oinarrizko errentara jo aurretik.

Durangoko Merindadearen Amankomunazgoko datuen arabera, 2004an 26 famili unitate jasotzen zituzten Oinarrizko Errenta Izurtzan, 142.535,75 €tako gastuarekin.

Oinarrizko Errentak udalerrian azkeneko urteetan izan duen bilakaera hurrengo koadroan azaltzen da:

Udalerrria	2002	2003	2004
Abadiño	53.676,47	60.482,74	76.278,85

Iturria: Durangoko Merinaldearen Mankomunitatea (Gizarte Zerbitzuak)

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL)

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren, edo bizikidetza unitateko kideak direnen, onurarako laguntzak dira, euren bitartekoak oinarrizko gastuei aurre egiteko adinakoak ez direnean, gizarte-bazterketa saihesteko.

Durangoko Merinaldearen Mankomunitatearen datuen arabera, 2004an 27 pertsonen jasotzen zuten Gizarte-Larrialdietarako Laguntza Abadiñon, 43.077,53 €ko gastu batekin.

Ez dago GLL azken urteetan izan duten bilakaeraren inguruko daturik.

EMAKUMEAREN BERDINTZASUN ZERBITZUA

Abadiño Udalak emakumearen berdintasun zerbitzu bat du, emakumearen formakuntza, orientazio eta informazioari zuzendua, eta baita ekintza positiboari zuzenduriko programak egitera.

Aukera Berdintasunerako Plana hurrengo gaiak ziurtatzera zuzenduriko ekimen instituzional eta errekursoak biltzen dituen nukleoa da: ekonomia autonomia, emakumearen ziurtasuna eta berdintasuna, lan baldintzak hobetzeko neurriak, lan mundua eta bizitza familiarra tartekatzeko erraztasuna eta biolentzia ezabatu.

Edukiak:

- Berdintasun Plana
- Argitalpenak
- Tailerrak
- Termino bilduma

- Kurtsoak

TELEALARMA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekintza Sozialeko Sailaren Telealarma programak segurtasuna eta berehalako laguntza eskaini nahi die oso gaixo edo ezintasun handia duten pertsonei, oso zaila egiten baitzaie – baita ezinezkoa ere batzuei – larrialdietako telefono zenbakira deitzea. Arazo honi aurre egiteko euren eskutara jartzen da telefono aparatua berezi bat erabilpen errazekoa, finkoa edo eramangarria izan daiteke aparatua. Erabiltzaileak larrialdizko egoeran – edo normala ez den egoeran – aparatua duen botoiari ematen dio eta SOS DEIAK zerbitzuak jasotzen duen deia egiten du. Zerbitzu hau, onuradunaren eskaria jaso ostean, dagokion pertsona edo zerbitzuarekin harremanetan jartzen da arazoari aurre egiteko (medikua, ambulanzia, laguntzaile sozial, etxeko laguntza...).

Foru Aldundiak eskaintako datuen arabera (Ekintza Sozialeko Sailaren memoria, 2003) Elorriko udalerrian 8 pertsonek zuten zerbitzu hau.

Asistentzia-zentroi eta azpiegiturei dagokienez, hurrengo taulan ikus daitezke 2003an udalerrian zegoen gizarte-zerbitzuen zentro-kopurua. Eguneko zentro 2 daude, elkarreentzako 2 zentro eta lanbide zentro eta enplegu zentro berezi beste bi. Zerbitzu tekniko orokorreko zentro bat eta egoitza bat ere badaude udalerrian.

Gizarte-zerbitzuen zentro-kopurua eta zentro-motaren arabera. 2003

Udalerria	Guztira	Elkarreak	Zerbitzu tekniko orokorrak	Orientazio-zentroa	Eguneko zentroa	Egoitzak	Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak	Besteak
Abadiño	8	2	1	-	2	1	2	-
Durangaldea	52	13	11	0	15	8	2	3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

*: Lanerako-ikastegiak eta enplegurako zentro bereziak

3.2. Osasun-zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna

Abadiño udalerrian dauden osasun-zerbitzu nagusiak Osakidetzakoak dira, ondorengoak, hain zuzen ere:

Ospitaleak ez diren zentro publikoak. 2.003

Udalerria	Guztira	Anbulatorioak	Kontsultategiak	Osasun zentroak	Larrialdi zerbitzuak	Inguruko zentroak	Osasun mentaleko zentroak	Mutua laguntza zentroak	Besteak
Abadiño	3	-	1	1	-	-	-	1	-
Durangaldea	19	1	4	6	1	2	1	4	0

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Udalerriko osasun-zerbitzuak, osasun-zentro bakarrera eta kontsultategi bakar batera mugatzen dira, ondorioz, arreta zehatzago beharrezkoa denean, eskualdeko beste zerbitzu batzuetara jo behar izaten da, Durangoko anbulatiora edo Larrialdietako zerbitzura, edo bestela Galdakaoko ospitalera. Ospitale hauxe da eskualdeari dagokion ospitale-arretarako zerbitzua.

Biztanleriaren osasunari dagokionez, Abadiño heriotzen zergatiak hauexek dira:

Generoaren eta heriotza arrazoiaren arabera heriotzak. 2002

	Generoa			Heriotza arrazoiak					
	Guzt.	Gizonak	Emakumeak	Tumoreak	Zirkulazio aparatua	Amasketa aparatua	Lixeriketa aparatua	Istripuak	Beste gaixotasunak
Abadiño	57	33	24	12	20	8	-	4	13
Durangaldea	511	253	258	88	115	40	19	23	72
Bizkaia	10.684	5.584	5.100	3.182	3.368	1.102	553	433	2.046

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Generoaren eta heriotza arrazoiaren arabera heriotzak. 2002 (%)

	Generoa			Heriotza arrazoiak					
	Guzt.	Gizonak	Emakumeak	Tumoreak	Zirkulazio aparatua	Amasketa aparatua	Lixeriketa aparatua	Istripuak	Beste gaixotasunak
Abadiño	75	57,9	42,1	21	35	14	0	7	23
Durangaldea	100	49,5	50,5	17,2	22,5	7,8	3,7	4,5	14,1
Bizkaia	100,0	52,3	47,7	29,8	31,5	10,3	5,2	4,1	19,2

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Alderatutako datuak ez dira nahikoa adierazgarri eta esanguratsuak estrapolazioa egin ahal izateko, baina eskualde eta gainontzeko lurralde historikoari dagozkion joerak finkatu ditzakegu. Hauexek dira udalerriko erregulartasun esanguratsueni buruzko datuak:


- Gizonezkoen heriotza tasa altuagoa.
- Istripu eta liseri-aparatuen eta arnas aparatuen gaixotasunak eragindako heriotzetan tasa altuagoak.

3.3. Etxebizitza

Dokumentu honen hirigintza planeamenduaren azterketaren puntuak aztertzen da gaia.

3.4. Hezkuntza eta kultura

2001.urtean, Abadiñoako biztanleriaren ikasketa-mailaren arabera banaketa Durangaldea, Udaltalde 21 eta Bizkaia baino batz-bestekoa baino baxuagoa da, alfabetatu gabeko eta ikasketarik gabeko biztanleriaren kopurua handiagoa baita, eta bigarren mailako ikasketak edo goi mailako ikasketak dituztenak ordea, gutxiago dira.

Biztanleriaren banaketa ikasketa mailaren arabera 2001

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Udalerriko ikastetxeak

Eustaten datuen arabera Atxondon izaera publikoa duen ikastetxe bakarra dago, 2004-2005

ikasturtean 57 ikasle zituen.

Unibertsitateaz kanpoko ikasketak. Ikaslegoa mailaren arabera.2003-2004

	Publikoak	Pribatuak	Guztira
Haur hezkuntza			
Lehen hezkuntza			
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza			
Batxilergoa			
Lanbide heziketa			
Guztira	600	0	600

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Unibertsitateaz kanpoko ikasketak. Ikaslegoa hizkuntz ereduaren arabera. 2004-2005

	A-X	B	D
Haur hezkuntza	-	35	166
Lehen hezkuntza	-	64	167
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	-	60	116
Batxilergoa	-	-	-
Lanbide heziketa	-	-	-
Guztira	-	159	449

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

- A. Euskara ikasten dute ikasgai bezala. X. Ez dute euskararik ikasten
- B. Hezkuntza elebiduna
- D. Ikasgai guztiak euskaraz

3.5. Euskara

Euskararen ezagutzari dagokionez, 2001.urtean, biztanleriaren %52,3 euskaldunak ziren, %20,4 ia euskaldunak ziren, eta %27,3 erdaldunak ziren.

2 urteko eta gehiagoko biztanleria euskara-maila orokorraren arabera. 2001

Udalerría	Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunak				Erdaldunak
		Guztira	Alfab.	Erdizka alfab	Ez alfab.	Guztira	Alfab.	Ez alfab.	Pasiboak	
Abadiño	6.684	3.500	2.774	609	117	1.360	679	303	378	1.824

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Euskal hizkuntzaren promozio eta bultzadaren bitartez egiten den Euskararen erabileraren normalkuntza Euskara Zerbitzuak garatzen duen udal helburua da, udal Administrazioan zein udalerriko eguneroko bizitzan. 1986-2001 urte tartean udalerriko euskararen ezaguera hurrengoa izan da:

Euskararen garapen maila orokorra 1986-2001

Jarrera linguistikoaren garapena				
	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	2.971	3.201	3.581	3.500
la euskaldunak	795	1.229	1.156	1.360
Hiztun erdaldunak	3.157	2.489	2.050	1.824
Guztira	6.923	6.899	6.787	6.684

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Euskararen garapen maila orokorra 1986-2001 (%)

Jarrera linguistikoaren garapena				
	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	42,91	46,39	52,76	52,36
la euskaldunak	11,48	17,81	17,03	20,34
Hiztun erdaldunak	45,60	36,07	30,20	27,28
Guztira	6.923	6.899	6.787	6.684

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

1986-2001 aldiko garapenak, euskaldunen kopurua eta ia euskaldunena nabarmen hazi da, eta gaztelera soilik ezagutzen duten pertsonen kopurua ere asko gutxituz, eta gainera kontutan izan behar da hazkundea mantendu egin dela biztanleriaren kopurua jaitsi den arren.

4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

4.1. Ingurune fisikoa eta naturala

Abadiño Durangaldeko eskualdeko erdi hegoaldeko eremuan kokatuta dago. 36,1 Km²-ko azalera hartzen du; eskualde osoko %11,4 eta Bizkaiko %1,6, hain zuzen ere, eskualdeko hirugarren udalerririk handiena delarik. Zazpi herrixkek osatzen dute, Abadiño-Zelaieta bere burua da eta gainerako herriak hurrengoak dira: Gaztelua, Gerediaga, Traña-Matiena, Mendiola, Muntzaratz eta Urkiola.

Iparraldean Garai du mugakide; ekialdean Berriz, hegoaldean Aramaio (Araba) eta Otxandio, eta Mendebaldean Durango, Izurtza, Mañaria eta Dima Udallerriak.

4.1.1. Geologia, klima eta hidrologia

Geologia eta Geomorfologia

Lurraldeak aurkezten duen itxura luzatua baldintza natural oso berezien agerpena eragin du. Hegoaldetik udalerrria Durangaldeko eskualdearen ezaugarria den mendizerra kareharritsuak mugatzen du. Bertan Bizkaiko mendirik garrantzitsuenetariko bat kokatzen da, Anboto mendia.

Litologiaren ikuspegitik, sektore honetako harkaitzezko substratua Behe Kretazikoko materialek osatzen dute; Urgoniar arokoak, hain zuzen ere. Horien artean kareharri arrezifalak egonik. Osaketa honek morfologia gorabeheratsua sorrarazten du materialen gogortasunaren ondorioz higaduraren aurrean. Horien gainetik kareharrizko mendikate bat eratu da, zeinaren goren-maila garrantzitsuenak Alluitz (1.069 m), Aitz-Txiki (732 m) eta Unzillaitz (941 m) diren. Azken bi gailur hauen artean Atxarte harana kokatzen da, Atxarteko Harriak bezala ezagunagoa. Bere maldak irregulartasun handiak aurkezten dituzte, eredu karstiko baten ohikoa izaten den bezala. Hegoalderago Saibigain (932 m)) eta Urita (794 m) mendiak ageri dira.

Bestalde, iparralderago dagoen lurraldea lauagoa da, material tuparritsuen gainean eratutako azalera zabala delarik. Egitura honen gainean Ibaizabal harana zabaltzen da, udalerrria osatzen duten gunen populatuen egoitza izan dena. Hala ere badira higaduraren aurrean gogorragoak izan diren materialak, eta muino eran lurraldean mantendu dira, adibidez San Miguel (407 m), Gaztelumendi (305 m) eta Veresiya (181 m) muinoak.

Klima eta Metereologia

Euskal Herriko klima atlantiar eta mediterranearen klimen arteko trantsizio eremuan kokatzen da eta hainbat faktore dinamiko orokorrek baldintzatzen dute, horien artean azpimarratu behar dira Mendebaldeko korrantea eta Frente Polarra. Mendebaldeko korranteak berarekin dakartza masa lainotsuak, hezetasunez beteta iristen dira Euskal Herrira Atlantiar ozeanoa igaro ostean eta prezipitazio askoren eragileak dira. Tenperaturetan berebiziko garrantzia du Frente Polarra

urrunago edo gertuago egoteak.

Bestalde, maila lokalean, Euskal Herriko klimak lotura estua du egoeraren baldintzatzaileak deitzen direnekin. Baldintzatzaileak dira erliebea eta ozeanoarekiko gertutasuna. Erliebeak pantaila orografiko gisa ekiten du ekialdetik mendebalderako kokapena baitu orokorrean eta ozeanoarekiko gertutasuna kontraste termikoen erregulatzailea da. Kantauriar isurialdeko baldintza klimatiko ozeanikoen ondorioz euria maiz egiten du eta tenperaturak epelak dira. Durangoko udalerrria kantauriar zonaldean dago, eta beraz klima atlantikoak eragiten dio, klima epel hezea da eta ez du urtaro lehorrik.

Prezipitazioei dagokionez urteko batez bestekoa 1.100 eta 1.800 l/m² baino gehiagokoa da. Euri egunak asko dira, urtean 180 inguru batez beste.

Tenperaturei dagokionez, neguko batez bestekoa 8° ingurukoa da eta izotz arriskua dago azaroa eta urtarrila bitartean. Urteko batez besteko tenperatura 14°C-koa da, nahiz eta neguaren eta udararen arteko ezberdintasunak Durangaldean nabaritu daitezkeen.

Haizea mendebaldeko eta iparraldekoa izan ohi da, udaran salbuespena bada ere, haize lehorrak eta beroak nagusitzen baitira, hego-ekialdekoak. Haize bolada handienak 100 eta 105 Km/o abiadurakoak izaten dira.

Hidrologia

Herriko ibai-sarea Iparraldetik igarotzen den Ibaizabal ibaiak eta Hegoaldeko Urkiola ibaiek osatzen dute. Bi ibaiek Abadiño zeharkatzerakoan erliebe menditsuetatik datozen eta udalerrria inguratzen duten alineazio menditsuen hegaletatik jaisten diren erreka ugarien urak jasotzen dituzte. Durangaldeko mendikateak gainera Atlaiar-Mediterraneo isurialdearen mugalderoaren parte dira. Urkiola ibaiaren urak hegoaldera egiten dute Zadorra ibaiarekin lotu arte, Santa Engrazia urtegian biltzen diren urak, gero Ebroarekin batzeko Mediterraneorainoko bere ibilian. Iparraldeko Isurialdeak bere urak Ibaizabal ibaira bideratzen ditu, eta honek Arizeraino jarraitzen du, bertan Nerbioarekin batu eta Bilboko Itsasadarra osatzeko.

Uren Kalitatea

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien Ingurumen Egoeraren Uren Kalitatea Zaintzeko Sareak kontrolatzeko zazpi estazio ditu Ibaizabal arroan.

Abadiñoako kutsaduraren egoera ezagutzeko estazioak ondorengoak dira: I-140 (Smurfit Nervión, S.A. paper-fabrikatik ibaian gora), I-160 (Smurfit Nervión, S.A. paper-fabrikatik ibaian behera), biak Ibaizabalen kokatuta daudenak; eta IE-140 (Matienatik igarotzean), Elorrio ibaian kokatutakoa.

2002ko laginketa.

Ibaiaren ekosistemaren inpaktua		
Estazioa	Ekosistemaren mantenuaren galeraren maila	Arrainen faunaren toxikotasuna
I-140	99	N
I-160	100	B
IE-140	0	N

2002ko laginketa.

Estazioa	Ingurumen egoera	Ibaiertzen mantenua	Egoera ekologikoa
I-140	E2	Eskasa	Eskasa
I-160	E1	Eskasa	Eskasa
IE-140	E4	Onargarria	Onargarria

1. Arrainen faunaren toxikotasuna:

N: Ur normalak

B: Efektu toxiko eta patologikoak eragiten dituen biometanizazioa duten urak.

I: Arrainen bizirako bideraezina

2. E indizeak zehazten du urek biodebirtitate ahalik eta handiena izateko probabilitatea. Terminologia: E1 Hipereutrofia-inguru oso gogorra, E2 Kutsadura; ur kutsatuak, inguru gogorra, E3 Eutrofizazioa-inguru gorabeheratsua, E4 Ur garbiak-inguru establea, E5 Ur oligomesotrofikoak; inguru oso heterogeneoa.

Datu hauetatik ondorioztatu daiteke Ibaizabal ibaiak mantenuaren %100eko galera duela, arrainen bizitzaren garapenerako inguru egoera oso gogorra da eta ibai-ertzaren mantenua oso baxua da bi estazioetan:

- EZEREZA I-140an, ertzean eraikuntzak daudelako, zuhaitzak sartu direlako eta zaborrak isurtzen direlako.
- BAXUA I-160 estazioan

Elorrio ibaiari dagokionez, ingurumenaren gainbehera bizi da ibaiaren ekosistemaren mantenu baxuarekin eta ingurumen heterogeneitate handia galtzen ari da. Hurrengo taulan ikus daiteke ingurumen egoeraren garapena:

Laginketa puntuen ingurumen egoeraren garapena.

	INGURUMEN EGOERA					
Laginketa puntua	1993 udaberria/udara	1994 udaberria/udara	1995 udaberria/udara	1996 udaberria/udara	1997 udaberria/udara	1998 udaberria/udara
I-140	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E3	E2
I-160	E2/E3	E2/E3	E3/E3	E3/E3	E2	
IE-140		E3/E3	E3/E3	E3/E3	E4	E3
	INGURUMEN EGOERA					
Laginketa puntua	1999 udaberria/udara	2000 udaberria/udara	2001 udaberria/udara	2002 udaberria/udara		
I-140	E3	E1	E1	E2		
I-160	E2	E1	E1	E1		
IE-140	E2	E2	E3	E4		

Ikus daiteke ibaiaren artoaren ingurumen egoeraren galera 1997tik aurrera, garai honen aurretik I-140 eta I-160 estazioek E3 motako kalitate mailak erakusten zituzten maitasun

handiagoz.

Ur kalitatea

EUROPAKO ARTEZARAUAK			
Estazioa	Horniketa ¹	Estazioa	Horniketa ¹
I-140	A4	Ez egokia	III
I-160	A4	Ez egokia	III
IE- 140	A4	Ez egokia	III

1. 75/440/CEE hornikuntza artezaraia: Hornikuntza (A1, A2, A3)

A4 ur edangarrirako erabilgarria ez den ura, salbuespen kasuetan izan ezik, tratamendu zehatzekin.

2. Kontseiluaren Artezaraia 76/160/CEE: Bainua (Egokia, Ez egokia)

3. Kontseiluaren Artezaraia 78/659/CEE: Arrainen Bizitza (S.C, III)

III Ur kutsatuak, kalitate txarra

Uraren kalitate fisiko-kimiko orokorra

Ibaizabalen arroa oso humanizaturik dago, hirigune garrantzitsuak ditu (Durango bera) eta industrializazio handia bizi du, bi arrazoi horiek kutsadura handia eragiten dut, beraz, kalitate orokorra “Ez da iristen kalitate kimiko onera”.

Urak dituen kutsatzaile organikoen presentzia handia da, azpimarratu behar dira zinka, kobrea, kromoa, burdina eta beruna:

- Elorrio ibaiko estazioan (IE-140) uraren kalitatea baxua dela esan daiteke. DBO5ak hobetzeko joera erakusten du, azken aldietan balio oso baxuak aurkitu dira. Hala ere, DQOk balio baxuak erakusten dituen arren ez du inolako joera argirik erakusten. Gatz kutsadurak aldi ezberdinak erakutsi ditu, batzuetan kutsadura izan da eta beste batzuetan ez. Baina, 2001etik aurrera okertzeko joera ikusi da.
- Ibaizabal ibaiko estazioak (I-140 eta I-160): kromo presentzia handia erakutsi dute, industria handia duelako inguruan eta beste estazioetan baino arto inguratzaile txikiagoa duelako. DBO5 balioek (Oxigenoaren Eskaera Biologikoa gazteleraz – *Demanda Biológica de Oxígeno*, 5 egun) txikitzeko joera dute, baina DQO balioak mantendu egiten dira; honek badirudi esan nahi duela izaera biologikoko kutsadura gutxitzen ari dela (arakatze instalazio berriak eraiki direlako), eta izaera kimikoa duenak garrantzitsua izaten jarraitzen du. Gatz kutsadura I-140 estazioan hobetu eginga, 1999tik ez dago kutsadurarik.

Arrain komunitatearen konposizioa

Ibaizabal ibaiaren bizitza biologiko oso pobretuta dago, ez dago espezieak berriz bere eremu naturalak hartzea posible egingo duen errehabilitazio kimikorik. Azken urteetako bilakaera aztertuz Durango eta ere inguruetatik pasatzean duen aberastasuna arrisku handian daudela egiaztatzen da. 4 oinarrizko arrain espezie ikusten dira: Amuarraina, Loina, Zarboa eta Ezkailua, aniztasun indizea oso baxua delarik. Ibai hauetan agertzen ez den arrain familia nagusia Izokinarena da.

Arrain komunitatearen Kontserbazio Egoeraren diagnostikoa Moderatua da, eta horrek esan nahi du azken urteetan mantendu egiten dela. Aldiz “Faunaren konposizio eta aniztasuna” diagnostikoan egoera Oso Kalitate edo Egoera txarreko balorazio bat ematen digu.

Ibaiertzen Kontserbazioa

Ibaiertzeko landaretzaren egoera I-140 estaziotik igarotzen denean egoeran ahiko kaxkarra azaltzen du, hein handi batean industria eta etxebizitzaren eraikuntzaren eraginez. Baso hauetan eraldaketa gehien eragin duten inpaktuak deforestazioaren ondorio dira, eta ibaiaren ibilguaren aldaketa eta murrizpena.

Ibaizabal Ibaiaren balorazio orokorra

	<i>Egoera Biologikoa</i>	<i>Egoera Ekologiko</i>	<i>Diagnostikoa</i>
I-140	Kaxkarra	Kaxkarra	Kaxkarra
I-160	Kaxkarra	Kaxkarra	Kaxkarra
IE- 140	Onargarria	Onargarria	Onargarria

Uholde Arriskua

Traña-Matiena inguruko garapena (etxebizitza zein industriaren kasuan) uholde arrisku handiko eremu batean kokatua dago, bere garaian ibaiaren ibilguaren hazkunde zona batean eraiki baitzen.

Ibaizabal ibaia eta bere ibaiadarren uholde arriskuren arazoa era nahiko sakonean garatu eta deskribatu zen 2002ko maiatzean argitaratutako “Euskal Herriko Uholde Prebentziorako Plan Integrala” barruan.

Laburpen modura egoera hurrengoak litzateke:

- Elorrio eta Mañaria arteko Ibaizabal ibaiaren ezker aldeko ertzean uholdeak izateko arriskua.
- Matiena herrigunean uholdeak izateko arriskua, Ibaizabal ibaiaren ezker ertzean eta Elorrio Ibaiaren Eskuineko ertzean. Matiena bi ibai horien lotunean kokatzen da. Eremu honetan kalte ekonomikoak handiak izango lirateke populazio gehien biltzen duen eremuan baita.
- Elorrio ibaiak bere ezker aldeko ertzetik gainezka egiteko arriskua Astola auzotik BI-3323 errepede gaineko zubirarte, eta eskuineko ertzean zubi honetatik Zelaieta auzoraino.
- Matienatik gorako Ibaizabal ibaiaren ezker aldeko eremuan ibaia bere ibilgutik ateratzeko arriskua (larre eremua), eta eskuinaldera Ibaizabalek egiten duen meandroan.
- Ibaiak elkartu baino lehen Ibaizabal eta Elorrio ibaietan aurkitzen diren zubiak ez dira nahikoa. Arreta berezia merezi du Durangotik Matienara doan trenbide sarea.

Abadiño udalerrriak pairatzen dituen arrisku mailak uholdeen arriskuaren erruz hurrengoak dira Ibaizabal ibaiean:

- 10 urteko etorrera: 333.812,02 m² edo 33,38 Ha

- 100 urteko etorrera: 1.292.094,09 m² edo 129,21 Ha
- 500 urteko etorrera: 1.521.823,59 m² edo 152,18 Ha

Proposamena

Zenbait ekimen aurrera eraman badira ere, Zaldu ibaiaren ubideraketa, Matienako erdigunean, eta Eroski merkatal zentroa kokatzen den industrigunearen inguruan hertzeen egokitzea adibidez, arazoak duen larritasunak, gaur egungo guneetan duen eraginagatik eta baita etorkizuneko garapen urbanistikoa baldintzatzen duelako, Udala zein Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailerako ardura oso garrantzitsu bat suposatzen du, eta horregatik azken honek Abadiñon Ibaizabal ibaiaren Ubideraketaren Eraikuntza Proiektua eraman du aurrera, behin betiko arazo honi aurre egiteko.

Aipatutako proiektua TYPSA Ingeniaritzak garatu du aurrera.

Bestalde, Planeamendurako Arau Subsidiarioen berrikuspenean ekimen hauei dagozkien babes eremuak aurreikusi dira.

4.1.2. Flora eta fauna

Flora

Kontuan izanik normalean landarediaren baldintzatzaile diren faktoreak (klima, litologia, topografia...) euskal lurraldearen potentzialitatea zuhaitz-duna da. Soilik gazitasunean, harkaitz gandorretan eta hidromorfia garrantzitsuko eremuetan dauden lurrek izan ditzakete bestelako landaredia komunitateak.

Hala ere, berezko zuhaitziak aldatu egin dira denborak aurrera egin ahala, leku askotan gizakiarentzat ekonomikoki errentagarriagoak diren espeziekin ordezkatuak izan dira, eta bertan behera utzi diren lekuetan basoaren berezko etapa jarraituekin. Emaitza euskal paisaiaren dibertsifikazioa izan da; gaur egun, landaredi komunitate eta formazio aniztasuna eta aberastasuna dira emaitza. Beraz, Durangoko Jarduera Eremuaren baitako paisaiaren osagarri nagusiak koniferak eta zelai atlantikoak dira, potentzialki hariztiak eta ameztiak behar luketen lurretan.

Artadien eta pagadien kontserbazio egoera, hala ere, askoz ere hobea da. Nekazal balio txikiagoa duten lurrak hartzeak, batez ere artearen kasuan, eragin du bi baso formazio hauen zonalde handiak iristea gaur egun arte. Landaredia potentzialaren eta hauen kontserbazio egoeraren ingurukoak jarraian azaltzen dira modu laburrean.

Pagadiak

- *Espezie nagusia*: FAGUS SYLVATICA pagoa.
- *Espezie kideak*: gorostia eta otsalizarra pagadi oligotrofoetan. Hurritza, elorri zuria, hostazuria eta elorri beltza pagadi basofilo eta onbrofiloetan. Arrosa eta ezpel generoko espezieak pagadi basofilo eta xerofiloetan.
- *Txoko ekologikoa*: Pagoaren balio ekologiko zabalak izaera edafiko eta topografiko anitzeko biotopoak hartzeko aukera ematen dio, beraz, bi pago mota

ikus daitezke. Eremu menditarreko zorurik sakonenetan landaredia nagusia pagadi basofilo eta onbrofiloak dira. Kareharri gogorrek dauden lurretan, aldapa handikoetan eta euriek 1.200 mm gainditzen ez dituztenetan pagadi basofilo eta xerofiloak ageri dira.

- *Kontserbazio egoera*: Altuera handi samarrean egotearen ondorioz, normalean 600 metrotik gora, pagadien kontserbazio egoera ona dela esan daiteke, gainontzeko osaketa naturalek zigor gogorragoa jasan dute.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Saxifraga hirsutae - Fageto S. Y Carici sylvaticae -Fageto S., Epipactido helleborines-Fageto S.

Pagadiak 600 metrotik gora egon ohi dira, atmosferako hezetasuna altua den lekuetan, batez ere laiotzean. Hauek kaltzikolak liriteke hego-mendebaldeko sektorean eta azidofiloak ipar-ekialdean.

Lur azidoetan, hauek substratutik zuzenean edo lixibazio naro batetik eratorriak izan, finkatzen da pagadi azidofiloa. Oihanpea ez da oso itxia eta erabat baldintzatzen du pagadien errezelak eragindako itzalak. Basoaren garbiguneetan garoa eta txilarra dira nagusi, baita otadiak ere. Nahikoa ohikoak dira urkia eta hostazuria ere. Pagadi hauen nagusitasuna agerikoa den eremua askotan bazkaleku bihurtu dira, eremurik altuenetan, eta bertan sartu dira oreina bezalako alpetar espezieak.

Kareharria nagusi den eta aldapa handiko egoerak jasotzen diren mendilerroetan, bada bigarren pagadi mota bat, "pagadi xerofiloa" deitzen dena. Bertan, berezko flora ezinean ibili ohi da hezetasunaren ondorioz; aldiz, espezie berriak sortzen dira eta horien artean azpimarratzekoak dira orkidearen hainbat genero. Lurralde eremu altu eta zailtan izan ohi denez, erabilpen aldaketa oso zaila da eta ondorioz, baso honen erakusgarri txukunak gordetzen dira.

Artadia

- *Espezie nagusia*: artea, QUERCUS ILEX karraska.
- *Espezie kideak*: karraskila, gurbitza, gogortxua, arrosa eta abaritzza.
- *Txoko ekologikoa*: harkaitza karedunei lotua azaldu ohi da ia beti, hauen gainean azaleko lurra sortu ohi da, urari eusteko gaitasun gutxikoa. Aldapa handiko edo gandor eta ezproi eremuetan, bestelako osaketak izateko eremu zaila.
- *Kontserbazio egoera*: iristeko eremu zailtan egoteak eta ez produktiboak izateak zaila egiten du lur hauek nekazaritzarako, abeltzaintzarako edo basogintzarako, horrek asko lagundu du kontserbazioan.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Lauro nobilis-Querceto ilicis S., Spiraeo ovobatae - Querceto rotundifoliae S. Y Querceto rotundifoliae S.

Kareharriko erdiaren baitan, berezko harria gogorra da eta lurra murrizta, beraz, artadi kalzikolak izango liriteke landaredi heldua osatuko luketenak.

Ameziak

- *Espezie nagusia*: erkametzta, QUERCUS PYRENAICA ametza.
- *Espezie kideak*: gorostia, elorri zuria, pagoa, otea eta txilarra.
- *Txoko ekologikoa*: ametza normalean ura eusteko gaitasun gutxi duen lurrean izan ohi da, eremu onbroklimatiko hezeetan (600-900 mm.), harea-lurretan.
- *Kontserbazio egoera*: Euskal Herrian ez dira oso ohikoak ameziak, batez ere kantauriar isurialdean, normalean gandorretan eta mendi silizeoen eguteraan izan ohi dira.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Melampyro pratensis - Querceto pyrenaicae S. Y : Festuco heterophyllae-Querceto pyrenaicae S.

Ingurunean ametza beti bereziki lehorrak diren egoera edafotopografikoek baldintzatuta dago: hegoaldeko esposizioan, harea-substratuetan... Bere lore osaketa eta belaunaldiz belaunaldiko ordezkapenetan antza du harizti azidofiloena, are gehiago, ohikoa da bi espezien arteko hibridazioa.

Hariztiak

- *Espezie nagusia*: QUERCUS ROBUR.
- *Espezie kideak*: lizarrak, astigarra, hurritza, elorri zuriak, elorri beltzak, zuhandorra eta harizti mesotrofoen sasiak. Gaztainondoak, urkiak, gorostiak, eta zumalakarrak harizti oligotrofoetan.
- *Txoko ekologikoa*: harizti mesotrofoak baso higo-mesofitikoak, neutrofiloak edo basofiloak dira eta elikagaietan aberatsak diren lurretan osatzen dira. Bestalde, harizti oligotrofoak oinarrian txiroak diren lurretan osatzen dira.
- *Kontserbazio egoera*: Baso hauek oinarrian zuten lurraren etengabeko erabilpenak (normalean aranetako eremu lauetan ziren) ekidin egin du hauen kontserbazioa eta eraldatu egin dira larretan eta labore-lurretan bilakatuz. Gaur egun, garai batean hartzen zutenaren zati txiki bat hartzen dute.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Polysticho setiferi-Fraxineto excelsioris S., Hyperico pulchri-Querceto roboris S y Crataego laevigatae-Querceto roboris S.

Euskal Herriko kantauriar isurialdeko haranetan eta zelaietan ezartzen dira hariztiak. Baso hauek lurzoru sakon eta aberatsetan osatzen dira, eta horrek lore sail jarraitu anitza sortzen du, bai basoan eta baita honen amaieretan ere. Harizti mesotrofoak dira, "baso atlantiarrak" deitzen direnak, eta espezie anitzeko zuhaitziak dituzte (haritzak, astigarrak, lizarrak, gaztainondoak...). Euren egungo kontserbazio egoera prekariora da, bere eremu potentziala laboreetarako eta sega zelaietarako erabili baita.

Bada harizki kantauriar hauen eratorri azidofilo bat, aberastasuna askoz ere txikiagoa den arren. Zuhaitz masetan nagusi da haritz kanduduna, nahiz eta oso ohikoa den zuhaitzi ez horren itxiak aurkitzea, horietan ohikoak dira ote zurien, genisten eta txilarren moduko sastrakak izatea. Hartzen dituzten lurak oso txiroak diren arren, potentzialki hauen sorrerarako egokiak ziren lurretan gizakiak segarako zelaiak eta hazkuntza azkarreko

espezieak ezarri ditu.

Aurrez aipatu den moduan, gaur egun haritz kandudunak eraldatutako eremu gutxitan daude eta ia azalera osoa zelai-labore atlantiarrek eta koniferen birpopulaketek hartzen dute.

Erriberako basoak

- *Espezie nagusia*: haltzak, zumarrak eta makalak. ALNUS GLUTINOSA.
- *Espezie kideak*: lizarrak, haritzak, sahatsak, hurritzak, ahien zuriak eta atxaparra.
- *Txoko ekologikoa*: lurzoru alubialen gainean garatzen dira eta hezetasuna, izaera hetereogeneoa, porositate altua eta azalerako aire ona dira hauen ezaugarri nagusiak.
- *Kontserbazio egoera*: erriberako basoen landarediarentzako potentzialki egokiak diren ibarreko lur gehienak eraldatuak izan dira eta sega zelai edo laboretarako lur bilakatu dira. Hala ere, oso ezaguna da baso mota honek uraren uholdekotasuna baretzeko lanean egiten duen lan ona. Beraz, harroen higaduran beherakada eragiten du egoerak eta uholde larriei aurre egiteko gaitasunean atzera pausoa dakarte; horregatik, gaur egun erriberako basoen berreskurapenari heltzen ari zaio.
- *Kide fitsoziologikoak*: Hyperico androsaemi-Alneto S., Rubio-Populetum albae S. eta beste batzuk.

Ibaien eta erreken erriberetako landaredia kantauriar isurialdean baso mistoak osatzen du, bertan zuhaitzen errezela haltzek, lizarrek eta haritzek elkarbanatzen dute. Behin hazitakoan baso itzaltsua eta oso hezea da, bertan iratzearen ugaritasuna agerikoa da.

Haltzadi kauntariarrek inguratzen dute ipar-mendebaldeko ur jariora, baina ez dute garapen handirik hartzen. Bestalde, kareharriaren inguruan dauden ibaien ibarreen lizardi-zumardiak dira nagusi.

Hegoaldera dauden zonaldeetan, ibaiaren arroa handiagoa den eremuetan, garatzen dira makaldiak eta zumardiak. Nahiz eta badiren komunitate hauen eredu batzuk, erriberako baso hauek gaur egun oso eraldatuak daude, laboreetarako lur oso produktiboak direlako. Gainera, zumardiek kalte handia jasan dute zumarrak izan duen gaixotasun baten ondorioz, grafiosiaren ondorioz.

Ibaien ertzetan zelaiak eta baso landareak dira nagusi eta kasu askotan hirigintza lanak jasan dituzte. Ondorioz, erriberako basoak zuhaitz solteetara edo zuhaitz ilaretara mugatzen dira.

Bertako basoen desagertzearen ondorioz bestelako baso landareak ezarri ez diren eremuetan sastrakak edo belarkarak ageri dira. Lehenen alorrean otalur azidofiloa eta elorri-lahardia dira nagusi.

Osaketa belarkarek neurri handian egin diote ekarpena Durangoko Jarduera Eremuko

paisaiaren osaketari, batez ere, guztietan aiagarrietan, zelai atlantiarrenari. Belar komunitate seminatural hauek, baso landareekin batera, altuera erti eta baxuko azaleretan elementu nagusienak dira. Altuera ertain-altuetan, pagadien nagusitan potentziala, aurreko belarkaren osaketen ordeztu mendiko zelaiak dira nagusi.

4.1.3. Paisaia eta ekologia intereseko guneak

Abadiñoako udalerrria Urkiolako Parke Naturaleko inguruko mendien barrean zabaltzen da, eta babestutako natur gune horri bere azaleraren 1.454,2 Ha ematen dio; %24,41, hain zuzen ere. Beraz, Abadiñoako udalerrriaren zati handienetako bat babestutako azalera eta ekologia zein paisaia aldetik interes handikoa.

Urkiolako Parke Naturalak Aramotzeko mendizerrako lursail altuenak biltzen ditu, modu horretan kareharri hesi handia sortzen du Arratia, Durangaldea eta Aramaioko aranaren artean, ibaien kauntariar eta mediterraneor arroak ere bereizten ditu. Mendi hauen posizio geografiko eta fisiografikoak paisaia malkartsua sortzen du, harkaitzak eta bazkaleku altuak dira nagusi, beheraxeago eta mendi hauen magalean pinudiak, artadiak eta pagadiak agertzen dira. Urkiolako paisaia multzoa hego-ekialdetik ipar-ekialdera doan ardatzean kokatzen diren kareharri mendizerra handiek osatzen dute; gandor zorrotzuko eta malda handiko harkaitz handiak daude. Gandor hauen behealde artadi ilunek, pagadiak eta landaketa zonalde handiek hartzen dute, paisaia aberasgarria eginez. Paisaian eraldaketa gehien egin dutenak azpiegiturak izan dira, azpimarragarria trafiko handia duen BI-623 errepidea, izan ere, parkea erdi-erditik zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera; harrobiak egindako inpaktu bisuala ere oso handia da.

4.1.4. Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak

Aurretiaz esan bezala, Abadiñoako udalerriak 36,1 Km² ditu azaleran, gutxi gorabehera.


Lurraren erabilpen banaketari dagokionez, 1996an Abadiñoako lurraldearen %10,71 ez zen produktiboa; %25,97 larrek hartzen zuten; azalera osoko %5,18 sastrakak ziren; %55,07 zuhaitz-baso trinkoari eskaintzen zitzaion; eta %1,07 zuhaitz-baso barbanak ziren.

Lurraren erabilpeneren banaketa lurralde eremuen arabera (hektareak). 1.996

	Etzeak	Larreak	Larrediak	Sastrakadia	Zuhaitz-baso trinkoa	Zuhaitz-baso barbana	Lan trinkoak	Guztira
E.A.E.	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481
Bizkaia	19.129	50.867	4.114	17.533	121.259	6.985	1.836	221.723
Abadiño	380	921	59	184	1.953	38	11	3.546

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Lurraren erabilpeneren banaketa lurralde eremuen arabera (hektareak) 1996



Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ustiatutako azalerari dagokionez, 1999. urtean Abadiñon kokatutako 262 ustiategi zentsatuetatik %63,36 abeltzaintzarekikoak ziren, %35,88 abeltzaintzarik gabekoak eta gainerako %0,76 lurrik gabeko ustiategiak ziren. Bestalde, Abadiñon landa-erabileretara bideratutako guztizko azalera 2.896 Ha ziren, eta horietatik %36,36 abeltzaintzarekikoak eta gainerako %63,64 abeltzaintzarik gabekoak.

Ustiategi zentsatuak eta guztizko azalera. 1999

Lurraldea	Guztira		Abeltzaintzarekin		Abeltzaintzarik gabek		Lurrik gabeko ustiategiak
	Kopurua	Ha.	Kopurua	Ha.	Kopurua	Ha.	
EAE	39.956	606.187	19.066	245.930	20.568	360.257	322
Bizkaia	20.333	171.712	9.398	78.604	10787	93.109	148
Abadiño	262	2.896	166	1.053	94	1.843	2

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Abeltzaintzako jarduerari dagokienez, kopuruari dagokionez garrantzitsuenak direnak ardi-aziendak dira, 1.474 abelburu guztira.

Azienda-motak eta unitateak. 1999

	1999	
	Ustiategiak	Abelburuak
Behi-aziendak	-	918
Ardi-aziendak	-	1.474
Ahuntz-aziendak	-	130
Txerri-aziendak	-	29
Zaldi-aziendak	-	125
Hegaztiak	-	-
Untxi-amak	-	-

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Abeltzaintzako ustiategi gehienak nekazaritzako beste jarduerekin batera garatzen dira, edo familiarako beharrezanegi begirako ustiategi txikiak dira eta baserrietako ekonomien osagarriak dira.

Baso-berritzeak

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendi Sailaren arabera, 2000-2005 epean Abadiño udalerrian hurrengo baso berritzeak egin ziren:

2001 Urtea

Mendiola inguruan 4,5 Hako berritzea, Urkiola-Basoak				
Erabilitako espezieak	Pagoa	Haritza	Gaztainondo	Urkia
	40%	30%	20%	10%
Urrekontua: 25.719 €				

Elosu inguruan 1,55 Hako berritzea, Untxilatz				
Erabilitako espezieak	Pagoa	Haritza	Gaztainondo	Urkia
	60%	20%	5%	5%
Urrekontua: 7.814 €				

Txakurzulo inguruan 4,5 Hako berritzea, Urkiola-Basoak				
Erabilitako espezieak	Pagoa	Haritza	Gaztainondo	Urkia
	40%	30%	20%	10%
Urrekontua: 20.567 €				


2004 Urtea

Dantzaleku inguruan 1,5 Hako berritzea, Urkiola-Basoak	
Erabilitako espezieak	Pagoa
Urrekontua: 5.242 €	

Baso-azalera zuhaitzeztatua

Udalerriko baso-azalera zuhaitzeztatuaren banaketari dagokionez, 1991. urtean azalera osoa 1.991Ha ziren, eta horietatik 406 Ha hostozabalak ziren; eta beste 1.584 Ha, koniferoak. Beraz koniferen nagusigoa oso nabaria da.

Baso-azalera zuhaitzeztatua, espezieen arabera (hektareak) 1996



Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Baso-suteak

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko datuen arabera, 1999-2005 epean 10 sute egon ziren Abadiñon, eta kasu horretan 19.800m² azalera bat kaltetua suertatu zen.

Udaltalde 21eko udalerrietan gertatutako baso-suteak 1999-2005 epean

<i>Udalerría</i>	<i>Intzidentzien kopurua</i>	<i>Kaltetutako azalera (m2)</i>
Abadiño	10	19.800
Atxondo	1	3.000
Berriz	12	64.150
Durango	4	6.000
Elorrio	12	35.300
Garai	4	10.000
Iurreta	5	800
Izurtza	1	10.000
Mañaria	2	Alarma faltsuak
Otxandio	0	-
Zaldibar	10	29.000
<i>Guztira</i>	61	178.050

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko

Aterakuntzazko jarduerak

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako informazioaren arabera, gaur egun ez dago jardunean ari den aktibitatearik Abadiñon. Hala ere Atxarteko harrobiaren berreskuratzea bideraturiko esplotazio proiektu bat existitzen da, Abadiño Udalak berak bultzaturikoa.

4.2. Lurralde antolaketa eta planifikazioa**4.2.1. Lurraldean Antolaketarako Artezbidetako (LAA) eta Lurraldearen Zatikako Plana****Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetako**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetako (LAA) dira luraren legedietan aurreikusitako antolaketa planak eta luraren antolaketarako tresnak osatzeko erreferentziatzeko marko nagusia.

Artezbidetako finkatzen dute jarduerarako eremu egoki gisa lurraldearen antolaketarako eskualdeko eremua, gure kasuan Durangoko Jarduera Eremua.

Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetako zonalde hauen mugapena "jarduera" irizpideen arabera zehaztu behar dira, eta bera osatu behar dute udalerrri ardatzak eta bere eragin eremuan dauden udalerriek. Honako baldintzak jaso behar dira Lurraldearen Jarduera Eremu ezberdinen osaketa eta egituratze egokia egiteko:

- Homogenitate geografikoa
- Bere inguru geografikoarekiko hirigune baten edo gehiagoren lidergoa
- Osagarritasuna, barne mailako harreman handiagoa dagoenean kanpo mailakoa baino.

Irizpide horiek kontuan hartuz osatu da Durangoko Jarduera Eremua, Durango da eremuko ardatza eta berarekin batera dira honako udalerriak: Abadiño, Amorebieta - Etxano, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, lurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

LAA-ek proposatzen duten Lurralde Ereduak lurzoruaren kudeaketarako irizpideak ematen ditu bizitegitarako edo jarduera ekonomikorako luraren erabilpen gaitasuna definituz eta horretarako landuko diren eremuak zehazten ditu; bereziki Amorebieta-Etxano – Durango ardatza zehaztuz. Azken urtetako joera ikusita, ardatz hau zabaldu ahalko litzateke Amorebietatik Berriz, Abadiño, Atxondo eta Elorrio arte. Hala ere, azpimarragarria da eremuak Erkidego Autonomoaren jarduera industrialen baitan hartzen duen garrantzia. Bizitegitarako luraren erabilpenaren aurreikuspenei dagokionez, Durango-Abadiñoaren hazkunde garrantzitsua proposatzen da, eta bigarren etxerako erabilpena bezalako aukerei ez zaie garrantzirik ematen.

Lurraldearen Zatikako Plana

Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren (EHSP) baitan eta Lurralde Antolamendurako Artezbidetan (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 12/2/97an EAO.-n argitaratuak) zehaztutako jardute eremuen barruan Izurtza Durangoko Jarduera Eremuaren barruan kokatzen da.

Durangoko Jarduera Eremua Lurraldearen Zatikako Plana lantzen ari da eta bere lehen bi faseak bete ditu: Informazioa eta Diagnostikoa egitea eta Aurrerakinaren osaketa.

Durangoko Jarduera Eremuko LZPre aurrerakina 2002ko otsailean osatu da eta COTPV-ra (Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Komisiora) bidaltzekotan da.

Bere Memorian proposatzen diren helburu nagusiak hauek dira:

- Durangoko Jarduera Eremua indartu Euskal Herriaren eta Bizkaiaren artikulaziorako gako gisa, bere kokapen estrategikoagatik.
- Aranaren amaierako urbanizazio handiaren eta baserrian oinarritutako nekazal jardueraren arteko elkarbizitza zaintzea.
- Lurraldearen erabilpen egoki horretan oinarritutako hiri garapena bultzatzea.
- Ibaizabalgo korridorearen konpetibitate eta birkualifikatze elementuak indartzea.
- Eusko Tren Jarduera Eremuaren elementu artikulatzailea: bikoizketaren ezaugarri baikorrak.
- Bitarteko naturalean eta landa paisaiaren babes aktiboa bermatzea, paisaia kalitatearen berme den baserriaren bideragarritasuna ziurtatuz.

Etxebizitzaren gaiaren inguruan Abadiño-Durango-lurreta-Izurtza ardatzarentzako 4.914 etxebizitzako aurreikuspena egiten da 200-2003 urte tarterako.

Urkiolako Parke Naturalaren Erabilpen eta Kudeaketarako Gida Plana (EKGP)

Ingurumenaren eta Lurraldearen Antolaketarako Sailaren ekainaren 18ko 147/2002 dekretuaren bidez Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalen antolaketarako plana onartu zen.

Urkiolako Parke Naturalaren lurraldeak zortzi udalerrri hartzen ditu bere baitan, horien artean dago Durango. Beraz, Urkiolako parkearen baitan dauden lur eremuak Antolaketarako Planaren irizpideen arabera antolatuko da.

Gida Planaren helburuak honakoak dira:

- Erabilpen eta jardueren kudeaketarako arauak definitzea eta garatzea eta eremu natural babestuaren helburuak beteko direla bermatzeko baliabide naturalen mantenua ziurtatuko duten ekinbideak egitea. Horren baitan ulertzen dira natura fenomenoaren interpretazioa, ingurumen heziketa, ingurune naturalaren erabilpen antolatua eta parkean edo inguruan bizi diren komunitateen garapen eta ikerketa sozioekonomikoa.
- Baliabide mota bakoitzarentzat babes araudia definitzea.
- Parke Naturalaren barruan garatzen diren izaera sozioekonomikodun jarduerak zehaztuko dituzten arau orokorrak definitzea.
- Eremuz eremu heziketarako eta aisialdirako zonalde batzuk izan dezaketen potentzialitatea eta eremuaren babesa bateragarri egingo dituen Erabilpen Publikoko Plana osatzea.
- Parkea eta bere inguruaren arteko harreman ona erraztuko duen markoa erraztuko duten neurriak bultzatzea.

4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana

Behin betiko onartutako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planei dagokionez, Izurtzako udalerrientzako aurreikuspen zehatzak hurrengoak dira:

- Ibaien eta Erreken hertzak antolatzeko Antolaketa Plana - . Isurialde Kantauriarra (Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak onartua). Mañaria ibaiaren eta bere isurkideen inguruan babes arau orokorrak aurreikusten dira.
- EAEko Errepideen Plan Orokorra, 355/1992 dekretuaren bidez onartua. Diagnostiko honen beste atal batzuetan garatzen dira aurreikuspenak.
- EAEko Trenbide Sarearen Plana (otsailaren 27ko 41/2001 dekretuak onartua). Udalerrria zeharkatzen duen Abiadura Handiko Trenari eta Eusko Treni dagozkion aurreikuspenak jasotzen ditu. Proposatzen den ekinbideetako baten helburua Bilbo eta Durango arteko bidea hobetzea da. Ekinbide hau, hirigintza jarduera funtsezkoa da, ez tren jarduera, ekinbidearen ondorioz hiriguneko lur azalera handia lortuko bailitzateke.

- Hezeguneen Antolaketa Plana (uztailaren 27ko 160/2004 dekretuak onartua). Ez du Izurtzan inongo hezegunerik sailkatzen
- Jarduera ekonomiko eta Merkatal Ekipamenduentzako Lurzoru Plana, abenduaren 21eko 262/2005 dekretuak onartua (EAEAO 28/1/05).

4.3. Hirigintza-planeamenduko egitura eta ezaugarriak

Pasadan 2005eko Otsailaren 10ean, Abadiñoko, Udaleko Osoko Bilkurak 1987ko Otsailean indarrean jarri ziren Arau Subsidiarioen behin behineko berrikusketa onartu zen, eta dokumentu horretan erakusketa publikoan azaldutako dokumentuak eta berari Plenoak egindako zuzenketak jasotzen ziren, bere behin betiko Onarpena egiteko.

Irizpide eta helburu orokorrak

Behin-behineko Arau subsidiarioen dokumentuan adierazten diren irizpide eta helbururak bere Aurrerapen dokumentuan azaltzen ziren berdinak dira, nahiz eta garrantzi gehiago jaso duten arloak dauden . Hurrengoak lirateke:

- Hiri lurzoru eta Lurzoru Urbanizagarria egituratu, Etxebizitza, Merkataritza zein industriarako, batez ere sektore berrien eta beste sektoreen lotuneen errepide sareak egituratutakoa.
- Sarearen aldaketa hauek, herrizgandiko korridore berriek lagunduta, gaur egungo zenbait kale-errepide ezabatzea ahalbidetuko lukete, eta etorkizuneko trenbide sarearekin lotura berriak eratzea.
- Gainera hiri eremuak barneratzen ditu, gaur egun beraien artean sakabanatuta daudenak(Traña-Matiena, Lebario-Astola, Zelaieta-Muntsaratz).
- Bestalde, eremu eta sektore berrien integrazio hori espazio ireki berriak egokitzeko aukera ematen du, gainera oinezkoentzako eremuak posible eginez.
- Lurzoru Urbanizaezinari dagokionean, LAAen irizpideak jarraituz nekazal lurzoruaren gaineko kontrola handiko beharko litzateke.
- Helburu honi loturik Baserrien biziraupena eta berritzea bultzatu eta lagunduko litzateke.
- Era berean landa guneen hazkundera bultzatuko litzateke.
- Helburuen artean LAAek Hiri Lurzoru eta Lurzoru Urbanizaezinaren gainean egiten duten etxebizitza hazkunde aurreikuspenak bere gain hartzea legoke, etxebizitza kopuru maximoak hartuz.

Lurzoruaren Sailkapena

Hiri Lurzorua

Horrela sailkatutako lurzorua 1.842.021m² azalera du, ibairen ibilguan dauden lurak ere kontutan hartuz. Hauetatik 803.997m² egoitzarako dira, 52.787m² merkataritzako iharduerakoak eta 985.237m² industria izaerakoak.

Egoitzako Hiri Lurzorua

Esandako 803.997m²etatik, 709.399m² kontsolidaturik daude, 55.664m² gaur egun

exekutatzen dihardute eta 38.934m² sortu berriak dira, sortu berri bezala okupazio gutxi duten Exekuzio Unitateak direnak hartuta.

Lurzoru honetan 41 eremu daude, eta gehienak kontsolidatutako eremuak dira.

Hainbeste eremu desberdin egotea eremu berdinean dauden eraikinen aniztasunari dagokio gehien bat.

Sorrera berriko eremuentzako bitartean egiten diren el 0,30 m²/m² eta 0,80 m²/m² aprobetxamenduz gain, eraikinak dituzten lursail pribatuen antolamendua inposatzen da.

Eremu guzti horietan 60 exekuzio unitate ezartzen dira.

Merkataritzarako Hiri Lurzorua

Esandako 52.787m²etatik 50.335m² kontsolidaturik aurkitzen dira, eta batez ere ekipamenduei dagozkio.

Industriarako Hiri Lurzorua

985.237m² etatik bakarrik 9.881m² dira eraikuntza berrikoak, nahiz eta 280.428m² exekuzio fasean dauden gaur egun.

Lurzoru hauek 43 exekuzio unitate barneratzen dituzten 31 eremuetan kokatzen dira.

Ekipamenduentzako Hiri Lurzorua

8 Ekipamendu Eremu daude udalerrian, eta haietatik bakar bat da izaera pribatua duena.

Guztiak egoitzarako lurzoruen gainean kokatzen dira, Merkataritzarako lurzoruan aurkitzen den bat izan ezik.

Azken honek 50.335m² ditu, eta besteek 94.534m²ko azalera bat hartzen dute izaera publikoa dutenak eta izaera pribatua dutenak 8.904m². Guzti horrek 153.773m² ko azalera bat ematen du, eta horien artean zati garrantzitsu bat eremu berde eta espazio irekiak dira.

Lurzoru Urbanizagarria

Horrela sailkaturiko lurzoruak 983.645m²ko azalera hartzen du, ibaiaren ibilguan hartutako eremuak barne. Horietatik 293.562m² egoitzarako dira, 109.855m² merkataritzarako eta 580.198m² industriarako lurzorua.

Egoitzarako Lurzoru Urbanizagarria

Ia bere osotasunean lurzoru libreen gainean egoitzarako bideratutako 265.233m²etan, 5

etxebizitza existitzen dira, eta etxebizitza kopuru maximoak 60 etxeb/ha dira SR-1 eta SR-2 eremuetan (Traña-Matiene/Astola), 50 etxeb/ha SR-5 eta SR-8 eremuetan (Zelaieta-Muntsaratz), 55 etxeb/ha SR-6 eremuan (Zelaieta-Muntsaratz), 25,5 etxeb/ha SR-7 eremuan (Zelaieta-Muntsaratz), 10 etxeb/ha SR-3 eremuan (Zelaieta) eta 5 etxeb/ha SR-4 eremuan (Zelaieta).

Horrela Traña-Matiena eta Astolan baimendutako etxebizitza kopuru maximoa 696 etxebizitzakoa izango litzateke (691 etxebizitzako hazkundera), eta Zelaieta-Muntsaratz inguruan 362 etxebizitzakoa (359 etxebizitzako hazkundera).

SR-6 eremua bere osotasunean Babes Ofizialeko Etxebizitzetara bideratuko da, lurzoru gehiena jabego publikokoa baita.

Merkataritzarako Lurzoru Urbanizagarria

Helburu honetara zuzenduriko 119.264 m² beren artean mugakide diren bi sektoretan biltzen dira, Abadiño Durangorekin mugakide den eremuan.

Biek erabilgarritasun berdina dute, eta gaur egun bertan dauden etxebizitzak erabilera ere jasotzea dute berezitasun bezala (10 guztira), eta baita ere bere kontserbazio eta ordezkatzeari.

Industriarako Lurzoru Urbanizagarria

733.653m²etatik 78.201m²exekuzioan daude, SI-2 eta SI-5 eremuak hain zuzen, Durango eta Berrizgo zatikako planekin konpartitzen diren eremuak.

Finkatutako aprobetxamendua berdina da SI-1, SI-3 eta SI-7 eremuentzako, 0,45 m²/m²koa, eta okupazioa 0,36 m²/m²koa, SR-7 eremuarentzako izan ezik, honetan dituen ezaugarri bereziengatik okupazioa 0,30 m²/m²ra jaisten baita.

Lurzoru Urbanizaezina

Horrela sailkaturiko lurzoruak LAAen arauak jarraitzen ditu zonifikazio eta araudiari dagokionean.

Hurrengo puntuak adierazi beharko lirateke.

- Urkiolako Parke Naturalaren Babes Eremu bezala geratzen den azalera handia, bere araudi propio bereziarekin.
- 6 biztanle landa eremu, horietako bi sakabanatuak eta zeinetarako hazkundera komunikazio ardatz batzuen inguruan baldintzatzen den.

Lurzoru Urbanizagarria eta Hiri Lurzorua batera 2.957.099m² dira, eta beraz lurzoru Urbanizaezinari 32.604.699m² dagozkio, zeinetatik 14.530.486m² Urkiolako Parkearen

Babes Bereziko lurzoruan dauden eta 4.963.155m² Gailurren Babes eremuan.

Sistema orokorrak

Ekipamendu, Espazio Ireki eta Zona Berdeen Espazio Orokor gehienak Hiri Lurzoruaren barruan kokaturik daude.

Errepide, instalazioen azpiegitura, trenbide sarearen Espazio Orokorrak eta ibaia bera aldiz Lurzoru Urbanizagarri eta Urbanizaezinei dagozkio, normalean.

Haien artean hurrengo ekimenak azpimarra daitezke:

- Korridore berria eta autopista, errepide eta korridore beretik lotura berriak.
- Trenbide bide berriak:
 - Abiadura Handiko Trena
 - Bilbao-Donostia trenbidearen ibilbidea aldatzea eta lur azpitik sartzea.
- Ibaiaren tratamendua.
 - Lurzoru mota ezberdinetan ibaiaren ertzetan babes eremua.
 - Bi ibaien ubideratzea, Udaletxearen zubia eta Berrizekiko muga artetik Durangoko mugara arte, bi ebakuntza berrien kokapena kontutan izanda, bata Matienan eta bestea Lebarion.

4.5. Mugikortasuna eta garraioa

4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak

Udalerrria zeharkatzen duten azpiegiturak

Durangoko eskualdea lau komunikazio ardatz nagusik osatzen dute. Haietako bi Euskal Errepide Oinarrizko Sarearen parte dira: Vitoria-Gasteiz Durangorekin Urkiolako mendatearen bitartez lotzen duen BI-623 errepidea eta Elorriorekin lotzen duen BI-636 errepidea, biak iparralde-hegoalde norabidearekin. Hirugarren ardatza A-8 autopista da, Ekialde-Mendebalde norabidea duena, eta honi paraleloa eta Donostiarako norabidean N-634 errepidea. Aipatutakoez gain eskualde eta udalerrri mailako hainbat errepide dago. Udalerriko sarearen barruan BI-3333 eta BI-4331 errepideak aurkitu ditzakegu, Durango Matienarekin lotzen duen errepidea lehenengoa eta Orozketarekin bigarrena.

Trafikoaren intentsitatea

Arrisku zonaldea Urkiolako Parke Naturalaren basoetan ematen da gehien bat.

Abadiñorentzako arrisku garai hauek, Euskal Autonomi Erkidegorako egindako zonifikazioaren arabera, hurrengo eran geratuko lirateke:

I.zona.- Iparraldeko kostaldetik uren banalerroraino, Arabar Lautadako mugaraino gutxi gora behera:

- Arrisku altua: 1/10 - 31/3
- Arrisku ertaina: 1/8 - 30/9 eta 1/4 - 15/5.
- Arrisku baxua: 16/5 - 30/7.

6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA

6.1. Gizartea eta hiritarren parte-hartzea

Ingurumena babestea eta hobetzea ez dago instituzioen menpe, baizik eta udalerriko hiritar guztien elkarlanaren beharrez dago. Horretarako biztanleriaren sektore guztiei zuzendutako informazio- zein kontzientziazio-kanpainak abiatu behar dira.

Bestalde, "Durangaldeko Udaltalde 21en Talde-Lanaren esparruan, Tokiko Agenda 21 garatzeko, galdetegi bat egin da: "Durangaldeko biztanleriaren iraunkortasun kontzientzia. Hiritarren jarrerak eta usteak iraunkortasunari buruz".

Atal honetan biltzen ditugu Tokiko Agenda 21 osatzeko prozesuaren baitan Durangaldeko Udaltalde 21eko udalerrri guztietan egin den galdeketa izurtzako hiritarrek iraunkortasunaren problematikari buruz azaldu dituzten iritziak.

Informazioaren bilketa egiteko galdera-sorta modu honetan antolatzen zen: arazo sozioekonomikoen, ingurumenezkoen eta sozialen inguruko poztasun maila jakin nahi zen, baita Durangaldeko Udaltalde 21eko udalerrietako hiritarrek zein balorazio egiten duten hauetaz ere, administrazioaren sentsibilizazioa, bizitzaren kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna, jarduera ezberdinak abiatzeko beharrez duten iritzia eta Tokiko Agenda 21 prozesuaren garapenez duten ezagutza eta problematika horren gaineko foroetan parte hartzeko prestutasuna.

Galdeketa prozesu hau telefono bidez osatu da Durangaldeko Udaltalde 21 udalerrietan bizi diren 834 pertsonako lagin batekin, 2006ko urtarrila eta otsaila artean egin dira elkarrizketak. Horretarako Durangaldeko Udaltalde 21eko udalerrien eta eskualdearen iraunkortasunarekin lotutako gai sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoen inguruan zituzten kezka, iritzi eta jarrerak jasotzen zituen galdeketa egituratua erabili da. Abadiño udalerrian 110 elkarrizketa egin dira, hurrengo erara antolatuak:

Taula 1. Inkesten banaketa genero eta adinaren arabera

	Gizona				Emakumea				GUZTIZ
	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	
Abadiño	5	18	25	8	4	16	26	8	110


Jarraian udalerrian galdekatuak izan diren pertsonen emandako datu esanguratsuenak biltzen ditugu, eta alderatzeko, kide den udalerrri taldearenak eta laginketaren osotasunarenak.

a) Udalerrriak eta eskualdeak bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa ematen duen gogobetetze-maila

Hurrengo taulan alde batetik Abadiño herriarrek euren udalerriekiko eta eskualdearekiko gogobetetze-maila jasotzen dugu (1etik 4rako eskalan); eta aldi berean, Durangaldeko Udaltalde 21eko udalerrietan lortutako batez bestekoarekin alderatu dugu. Abadiño herriarrek udalerriekiko eta eskualdearekiko bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa duten gogobetetze-maila 3,1koa da. Eskualdeari dagokion lan egiteko eta bizitzeko poztasun mailari dagokionez, batez bestekoa antzeko da 3,09koa baita.

Azpitarratzekoa da, eskualdea osatzen duten udalerrietan batutako batez besteko osoak, bai asebetetze mailari dagokionez, eta baita udalerriei dagokienez ere, Elorrion jasotakoak baino baxuagoak direla .

Grafiko 1. Eskualdearekiko zein udalerriekiko gogobetetze-maila



b) Hiritarren artean gogobetetze-maila baxuenak lortu dituzten gaiak

Ondorengo taulan Abadiño biztanleen artean kezka gehien sortzen edo pizten duten gaiak azaltzen dira.

Taula 2. Gogobetetze-maila baxuena jaso duten lehen 10 gaiak.

	Batez bestekoa	Arloa
1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa	1,28	Soziala
2. Dauden bidegorriak	1,33	Ingurumena
3. Gazteentzako zerbitzuen hornidura eta kalitatea	1,75	Soziala
4. Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko egoera	2,03	Sozio-ekonomikoa
5. Nekazaritza ekologikoaren egoera	2,13	Sozio-ekonomikoa
6. Turismoaren egoera	2,21	Sozio-ekonomikoa
7. Txirotasunari, desberdinkeria sozialei eta bazterketa sozialari egiten zaion arreta	2,26	Soziala
8. Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua	2,31	Ingurumena
9. Ibilgailu pribatuaren erabilera	2,34	Ingurumena
10. Enplegurako aukerak	2,35	Sozio-ekonomikoa

Aurreko taulari jarraiki, gogobetetze-maila baxuena lortzen duen gaia etxebizitzarako sarbidea eta bere kalitatea eta prezioa da. Bestalde, dauden bidegorrien kezka azaltzen da herrian.

Egoki jotzen da azaltzea zeintzuk diren eremu ezberdinen artean ezinegonak sortzen duten gaiak. Ingurumen alorrean, gogobetetze-maila baxuena lortu duten gaiak ondoko hauek dira:

Taula 3. Gogobetetze-maila baxuena lortu duten ingurumen-gaiak

Asebetetze maila txikiena izan duten gaiak.	Batez bestekoa	Arloa
1. Dauden bidegorriak	1,33	Ingurumena
2. Enpresek sortutako kutsadura maila	2,09	Ingurumena
3. Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua	2,31	Ingurumena
4. Ibilgailu pribatuaren erabilera	2,34	Ingurumena
5. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna	2,36	Ingurumena
6. Ibaietako uraren kalitatea	2,46	Ingurumena

Gizarte-alorrean, gogobetetze-maila baxuena lortu duten gaiak ondoko hauek dira:

Taula 4. Gogobetetze-maila baxuena lortu duten gizarte-gaiak.

Asebetetze maila txikiena izan duten gaiak.	Batez bestekoa	Arloa
1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa	1,28	Soziala
2. Gazteentzako zerbitzuen hornidura eta kalitatea	1,75	Soziala
3. Txirotasunari, desberdinkeria sozialei eta bazterketa sozialari egiten zaion arreta	2,26	Soziala
4. Eskolako porrotaren arazoa	2,58	Soziala
5. Emakumearen desberdintasun egoerari arreta	2,12	Soziala

Azkenik, alor sozioekonomikoan gogobetetze-maila baxuena lortu duten gaiak ondoko hauek dira:


Taula 5. Gogobetetze-maila baxuena lortu duten gai sozio-ekonomikoak.

Asebetetze maila txikiena izan duten gaiak.	Batez bestekoa	Arloa
1. Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko egoera	2,03	Sozio-ekonomikoa
2. Nekazaritza ekologikoaren egoera	2,13	Sozio-ekonomikoa
3. Turismoaren egoera	2,21	Sozio-ekonomikoa
4. Enplegurako aukerak	2,35	Sozio-ekonomikoa
5. Saltokien egoera	2,57	Sozio-ekonomikoa

c) Zer hondakin mota birziklatzen duzu?

Birziklatzen dituen elementuekiko biztanleriak duen ustea jaso asmoz, inkestan elementu sail bat proposatu zen birziklapena egiten den ala ez ondorioztatzeko.


Hurrengo grafikoan kasu honen emaitzak jasotzen dira, bertan Abadiñoko eta Durangaldeko Udaltalde 21eko kide diren udalerrien batez bestekoak ematen dira, 1 "inoiz ez" da eta 3 "maiz".

Grafiko 2. Birziklatzen diren hondakin-motak

Ikus dezakegu papera, plastikoa eta beira normalean birziklatzen direla, eta pilak zerbait gutxiago. Beraz, esan dezakegu biztanleriaren portzentaje altu batek birziklatu egiten dituela material hauek. Olioa eskualdearen gainerakoan baino askoz gehiago birziklatzen dira, eta likido arriskutsuei dagokienez, disolbenteak eta pinturak bezala, Abadiño biztanleek ia ez dituzte bereizten gaikako bilketarako.

d) Bere inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna

Galdera-sortari erantzuten dioten pertsonen euren inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak zein neurritan aldatzeko prest egongo ziren erakusten dute, hurrengo grafikoan jasotzen da emaitza. Bertako biztanleen erantzunak honako eskalan zehaztu ditugu: 1etik "inoiz ez" 3ra "maiz".


Grafiko 3. Ohiturak aldatzeko prestutasuna

Aurreko grafikoan Abadiño Udal biztanleek aldaketarako azaldutako prestutasun-maila eskualdeko batez bestekoaren gainetik dago. Bestalde, Udalerriaren beraren batez bestekoa lortu ez duten jarduerak edo ekintzak ondorengoak dira: tasa edo zerga gehiago ordaintzea garapen iraunkorrean inbertsioak egiteko, mendiak eta ibaiak garbitzeko kanpainetan parte hartzea, elikagai edo produktu ekologikoak kontsumitzea garestiagoak izan arren eta iraunkortasunerako batzarretan aktiboki parte hartzea.

e) Jarrera iraunkorra eguneroko bizitzan

Inkestari erantzuten dioten pertsonen euren inguruko bizitza kalitatea hobetzeko iraunkortasunaren mesedetan zein neurritan jarduten duten zehazten dute. Jarraian azaldu dugu Abadiño Udal pertsonen hainbat eremutan iraunkortasunaren mesedetan jarduten duten neurria 1etik (inoiz ez) 3ra (maiz).

Hurrengo grafikoan jasotzen dira datu horiek.

Grafiko 4. Egunerokotasunean modu iraunkorrean aritzea.


Ikus dezakegu pertsona gehienek maiz iraunkortasunaren mesedetan jarduten dutela energiaren eta uraren kasuan. Aldiz, maiztasun hori txikiagotu egiten da erosketak egiterako garaian. Aldi berean, esan dezakegu Abadiñokoko maiztasunaren batez bestekoa Udaltalde 21eko batez bestekoa baino txikiagoa dela erosketak egiterakoan eta uraren kontsumoan.

f) Bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari den jakitea

Hurrengo grafikoaren arabera, Abadiñonn kontsultatutako biztanleriaren %8 daki Tokiko Agenda 21eko prozesua bultzatzen ari dela. Halaber, beste %42k aipatzen du ez duela ezagutzen Izurtzan prozesu hori sustatze ari dela.

Oro har, portzentaje altu batek, konkretuki %49,80k, ez dio galdera honi erantzuten, ziurrenik gai hori ez duelako batere ezagutzen


Grafiko 5. Bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari den jakitea



g) Zerbitzuen gertutasuna oinez joanda

Hurrengo grafikoan Izurtzan bizi diren pertsonak oinez 15 minutu baino gutxiagora dituzten zerbitzuak jasotzen dira.

Grafiko 6. Herritarrek 15 minutu baino gutxiagora duten zerbitzuak, oinez mugituz



Grafikoan jasotako datuetatik azpimarratzen da bertan bizi diren pertsonen %96,7k badituela birziklatzeko edukiontziak oinez 15 minutu baino gutxira. Oro har, Abadiñoko herritarren

gehiengoak badu oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukera. Hala ere nukleo ezberdinak izatea erabakiorra zerbitzuen ailegagarritasuna aztertzeke garaian, azkenean zebitzu asko bikoizteko beharra sortzen baita.

Abadiñon bizi direnen joan-etorriak

Hurrengo taulan Abadiñon bizi diren pertsonen aste egun batean egiten dituzten joan-etorriak azaltzen dira eta datuak jaso ditugu Durangaldeako Udaltalde 21 osatzen duten udalerriekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoekin alderatuta.

Taula 6. Izurtzan Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietan eta EAEn bizi direnen joan-etorriak.

Adierazleak	Abadiño	Udaltalde 21	CAPV
Pertsona bakoitzak egiten duen bidaia kopurua	1,9	2	2,55
Joan-etorrien batez besteko distantzia	7,2	8,2	10,34
Joan-etorrien denbora	14,13	16,55	20,0
Pertsona bakoitzak egunero egindako distantzia	13,19	14,86	26,37
Joan-etorrietan pertsona bakoitzak iragandako denbora	26,9	35,05	51,0


Datu hauek Udaltalde 21ekoekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoarekin alderatuta (2004ko Ekobarometro Sozialean jasoak) honako ezberdintasunak lortzen ditugu.

Bidaien kopurua Udaltalde 21eko batez bestekoa (2 bidaia) baino zerbait baxuagoa eta EAEnko batez bestekoa (2,55 bidaia) baino arinki baxuagoa da. Joan-etorri bakoitzean egindako batez besteko distantziari dagokionez, Abadiñon 7,2 km-koa da, Udaltaldekoa baino txikiagoa (8,2km) eta EAEnkoa (10,34 km) baino txikixeagoa da.

Joan-etorrietan emandako denbora baxuagoa da Abadiñon Udaltaldeko udalerrietan eta EAEn baino. Pertsona bakoitzak egunero behar duen denborari dagokionez, berdina gertatzen da batezbestekoari dagokionean.

Abadiñoko biztanleen mugikortasunari lotutako datu esanguratsuei dagokienez, hurrengo grafikoan herritarren garraiobide nagusiaren gaineko portzentajeak biltzen ditugu:

Grafiko 7. Joan-etorriak, motaren arabera.




Aipatu beharra dago kontsultakoen artean %52,6k adierazten du kotxe pribatua erabiltzen duela

lekualdatzeko garraiobide moduan, eta beste %39,1 oinez mugitzen da. Beraz, esan dezakegu bi bitarteko horiek direla Elorriokoko biztanleriak gehien erabiltzen dituenak. Autobusa (%6,1) eta gainontzeko garraioak ez dira ia erabiltzen.

Arrazoiaren arabera joan-etorriei dagokionez, hurrengo grafikoan ikus ditzakegu Abadiñoako datuak.

Grafiko 8. Joan etorriak, arrazoiaren arabera.



Abadiñoan joan-etorrien arrazoi nagusia lana da, %43,5. Horren atzetik, aisialdia eta asteko erosketak.

6.2. Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa

Udaleko ingurumen informazioa eta zabalkundea

Ez dira era egonkor batean ingurumen informazio eta sentsibilizazio udal kanpainarik egin, mankomunitateak egindakoez gain.

6.3. Udal-egitura

Egitura politikoa

Udal-batzaren osaketa

Karqua	Izena	Abizena	Abizena	Alderdi politikoa
Alkatea	JAVIER	URIARTE	BARINAGA	C.EAJ/PNV-EA
Alkateordea	SONIA	RODRIGUEZ	VELASCO	C.EAJ/PNV-EA
Zinegotzia	M ^a ANGELES	LARRAURI	LASUEN	C.EAJ/PNV-EA
Zinegotzia	MIKEL	GARAZABAL	ITURRIAETXEBARRIA	C.EAJ/PNV-EA
Zinegotzia	MATIAS	SENDINO	CAMPO	C.EAJ/PNV-EA
Zinegotzia	ARANTZA	ARANBURU	DERTEANO	C.EAJ/PNV-EA
Zinegotzia	JOSE LUIS	NAVARRO	DONAIRE	I.A.
Zinegotzia	ANTONIO	SERRANO	CHAMIZO	I.A.
Zinegotzia	MARGARITA	MEÑIKA	BASTERRECHEA	I.A.
Zinegotzia	JON PELI	LARRUSKAIN	URIGOITIA	I.A.
Zinegotzia	JOSE LUIS	PEREZ	PEREZ	EB-IU
Zinegotzia	ANGEL	RODRIGO	IZQUIERDO	PP
Zinegotzia	FERNANDO	CASTILLO	RODRIGUEZ	PSE-EE (PSOE)

Dauden Arlo edo Batzorde informatiboak eta beren arduradunak:

Emakume Saila

Arantza Aramburu Derteano

Agintaritza

Sonia Rodríguez Velasco

Osasuna eta Gizarte Ongizatea

José Luis Perez Perez

Kultura eta kirolak

Mikel Garaizabal Iturriagaetxebarria

Mendiak

Matias Sendino Campo

Ogasuna

M^a Angeles Larrauri Lasuen

Ura eta Hondakinak

Javier Uriarte Barinaga

Idazkaria

Kepa Larrabeiti Menika

Arkitektua

Javier Areso

Aparejadorea

Iñaki Mendizabal

**IZURTZAKO UDALAK UDALEKO ERAKUNDEETAN, UDALAZ GAINDIKO ENTITATEETAN
ETA BESTELAKO ENTITATEETAN DUEN PARTAIDETZA**

Udaleko erakundeak

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Behargintzan elkartua

Udalaz gaindiko erakundeak

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.

Bestelako entitateak

- Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL).
- Euskal Fundoa
- Urkiola-Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea.
- Urkiolako Parke Naturaleko Patronatua.

6.4. Udaleko ingurumen kudeaketa

Udaleko ingurumen araudia

Ez dago ingurumen araudi espezifikorik herrian. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Legea aplikatzen da, eta baita ingurumen babeserako gainerako sektoreko Araudia ere.

7.- ABADIÑOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

7.1. Diagnostikoaren laburpena

Demografia eta biztanleria

- **Biztanleriaren Bilakaera.** XX. mendeko azken 15 urteetan Abadiñok izan duen biztanleriaren bilakaerak beherapen motel baina jarrai bat adierazten du. XXI. mendean (2001-2005) biztanleria berreskuratzeko joera berrekuratu da.
- **Biztanleriaren egitura.** Bilakaerak azken urteetan emandako etengabeko zahartze bat adierazten du, 19 urtezbeherakoadin taldearen beherakada emanez eta 64 urtez gorako pertsonen kopurua handituz
- **Berezko mugimendua eta migratzailea.** EUSTATEk emandako datuen arabera, 1996-2003 epean hazkunde begetatiboko tasa positiboa izan zen (+57) erakusten dute datu hauek. 1999-2003 urte tartean inmigrazioa (338) emigrazioa (306) baino altuagoa da.

Ekonomia eta enplegua

- **Jarduera eta egitura ekonomikoa.** Industria sektorea da zalantzarik gabe nagusi biztanleria okupatzeko eta aberastasuna sortzeko garaian, zerbitzuen sektoreagatik jarraitua. Lehenengo sektorean udalerriaren bali erantsian duen garrantzia oso eskasa da, bakarrik %1.
- Biztanleria aktiboa eta langabezia. Oso baxua den langabezia kopuruak daude Abadiñon (Biztanleria aktiboaren %5,8). 10 urteotako garapena aztertuz gero, egoera nahiko hobetu dela ikus dezakegu, azken urteetan tarte guzti horren daturik hoberenak ematen direlarik. Bereziki emakumearengan zentratzen den langabezia bat da.

Gizarte-ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna

- **Gizarte-zerbitzuak.** Durangoko Merindatearen Amankomunazgoko datuen arabera, 2004an 27 pertsonak jasotzen zuten Gizarte-Larrialdietarako Laguntza Abadiñon, 43.077,53 €ko gastu batekin. Udalerriko osasun-zerbitzuak, osasun-zentro bakarrera eta kontsultategi bakar batera mugatzen dira.
- **Hezkuntza eta kultura.** Abadiñoko udalerriaren eskolatzeko-maila orokorra Durangaldeko Udaltalde 21ekoa eta Bizkaikoa baino baxuagoa da.
- **Euskara.** Euskararen ezagutzari dagokionez, 2001.urtean, biztanleriaren %52,3 euskaldunak ziren, %20,4 ia euskaldunak ziren, eta %27,3 erdaldunak ziren. Ez da euskararen eguneroko erabileraren inguruko daturik.

Lurraldea, Lurralde antolamendua eta Hirigintzako Planeamendua, eta Mugikortasuna eta Garraioak

- **Ingurune fisikoa eta naturala.** Abadiño Durangaldeko eskualdeko ipar-mendebaldeko eremuan kokatuta dago. 36,1 Km²-ko azalera hartzen du; eskualde osoko %11,4 eta Bizkaiko %1,6, hain zuzen ere.
- **Klima eta meteorología.** Bizkaia osoan bezala, Abadiñok ere klima atlantiar edo ozeanikoa du: Estazio lehorrik gabekoa, udazken eta neguan egiten du euririk gehien, negu leunak, uda freskoak eta eguna eta gauaren arteko tenperatura kontraste txikiduna.
- **Hidrologia.** Herriko ibai-sarea udalerria zeharkatzen duten bi ibai nagusiek osatzen dute, Ibaizabal Iparaldetik eta Urkiola hegoaldetik. Bi ibaiek udalerrria inguratzen duten alineazio menditsuen hegaletatik jaisten diren erreka ugarien urak hartzen dituzte.
- **Landaredia.** Berezko zuhaiztiak aldatu egin dira denborak aurrera egin ahala, leku askotan gizakiarentzat ekonomikoki errentagarriagoak diren espeziekin ordezkatuak izan dira.
- **Fauna.** Urkiolako Parke Naturaleko ornodunen fauna 126 espeziek osatzen dute, nagusiki jatorri edo / eta dispertsio eurosiberiarrekoak. Horietako asko Mehatxupearan diren Espezien EAeko Katalogoan daude. Abadiñok parkeari bere azalaren %40,3 ematen dio.
- **Paisaia eta ekologia intereseko guneak.** Abadiñoko udalerrria Urkiolako Parke Naturaleko inguruko mendien barrena zabaltzen da, eta babestutako natur gune horri bere azalaren zati garrantzitsu bat ematen dio; %24,41 hain zuzen ere.
- **Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak.** Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ustiatutako azalerari dagokionez, 1999. urtean 2.896 Ha ziren, eta Abadiñon kokatutako 262 ustiategi zentsatuetatik 166 (1.053 Ha.) abeltzaintzarekikoak ziren, 94 (1.843 Ha.) abeltzaintzarik gabekoak eta 2 ustiategi lurrik gabekoak. Abeltzaintzako jarduerari dagokionez, kopuruari dagokionez garrantzitsuenak direnak ardi-aziendak dira, 1.474 abelburu guztira. Udalerriko baso-azalera zuhaitzeztatuaren banaketari dagokionez, 1999. urtean azalera osoa 1.991 Ha ziren, eta horietatik 406 Ha hostozabalak ziren; eta beste 1.5840 Ha, koniferoak. Beraz koniferen nagusigoa oso nabaria da. 1999-2005 epean 10 sute bat izan ziren Abadiñon, eta kasu horretan 19.800m² azalera bat kaltetua suertatu zen. Gur eun ez da aterakuntzako iharduerarik geratzen udalerrian, baina Atxarteko harrobiaren berreskuratzea bideraturiko esplotazio proiektu bat esistitzen da, Abadiñoko Udalak berak bultzaturikoa.

Lurraldea eta lurralde antolamendua

- **Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetia.** Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren (EHSP) baitan eta Lurralde Antolamendurako Artezbidetian (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 12/2/97an EAO.-n argitaratuak) zehaztutako jardute eremuen barruan Abadiño Durangoko Jarduera Eremuan ageri da.
- **Hirigintza-planeamenduko egitura eta ezaugarriak.** Pasadan 2005eko Otsailaren 10ean, Abadiñoko, Udaleko Osoko Bilkurak 1987ko Otsailean indarrean jarri ziren Arau

Subsidiarioen behin behineko berrikusketa onartu zen, eta dokumentu horretan erakusketa publikoan azaldutako dokumentuak eta berari Plenoak egindako zuzenketak jasotzen ziren, bere behin betiko Onarpena egiteko. Arazo oso garrantzitsu bat udalerraren zati garrantzitsu batek duen uholde arrisku handia da. Matienako etxebizitza zein industria lurzorua (4.000 biztanle) uholde arriskua du.

Mugikortasuna eta garraioak

- **Bide-sarea.** N-634 errepidean ibiltzen diren ibilgailuen intentsitateari dagokionean, Abadiñotik igarotzen den zatian 1999-2004 urte tartean gutxi gora behera egoera egonkorrean mantentzen dela aipatu daiteke. BI-363 errepidean izandako ibilgailuen igarotzeari dagokionez, udalerria igarotzean duenean 2004 urtean ibilgailuen Eguneko Batezbesteko Intentsitatea 13.665 ibilgailukoa izan zen, zeinetatik 11% astunak ziren. Horrez gain 1999-2004 urte tartean %7,41 hazkundera eman zen. Era berean, Durango udalerria zeharkatzen duen zatian (Durango-Abadiño) trafiko intentsitate handienak jasaten dituen zatia da. Gaur egun gai horren inguruko lkerketa bat egiten dihardute, eta beraz gai hori ezin da oraindik jorratu.
- **Parke mugikorra.** Abadiñon 2003an zegoen ibilgailu-kopurua 4.535 zen; hots, herriko biztanleria (7.016 biztanle) kontuan hartuz gero, herriko motorizazio-indizea altua zen: 646,3 ibilgailu 1.000 biztanleko, kopuru nahiko altua..

Ingurumen sektoreak

URA

- **Uraren hornidura, kalitatea eta kontsumoa.** Udal Ur Zerbitzuak Hornidura zerbitzuaren mantentze integrala egiten du. 2005. urtean Abadiñon etxebizitzarako ur kontsumoa 122,0 l/bizt./eguneko izan zen, Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerrien eta Bizkaiko eta EAE batezbestekoa baino apur bat altuagoa. Bere arrazoiak aztertu behar dira.
- **Saneamendua.** Ur zikinak arazteko sareak Abadiñoko biztanleriaren %95ri eskaintzen dio zerbitzua

KALITATE ATMOSFERIKOA ETA AKUSTIKOA

- **Kalitate Atmosferikoa.** Udalerrian ez dago EAeko Airearen Kalitatearen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Sareko estaziorik, baina bai Durangon. Esan behar da, 2004an bi egunetan airearen kalitatea oso txarra izan zela, 2003an 4 izan ziren mota horretako egunak eta 2001ean bakarra. Aztertutako datuen arabera, esan daiteke airearen kalitatea ez dela txarra, baina hobetu daitekeela.
- **Zarata.** Abadiñok ez du udalerriko akustikaren kalitatea ezagutzeko aukera emango lukeen zaraten maparik edo azterketa zehatzik.

ENERGIA

- **Energiaren kontsumoa.** Ia udalerriko energiaren kontsumoa osoa inportatu beharreko energia-iturrietatik dator. Azken 5 urteetan guztizko energiaren kontsumoa etengabe handitu egin da. Energia elektriko gehien kontsumitzen duen sektorea Industria da, 2004an %84,36 izanik; eta horren atzetik baina urrunago zerbitzuak (%9,50)
- **Energia Berriztagarriak.** Gaur egun, Abadiñoko udalerrian Eguzki bidezko energiatik energia berriztagarriak sortzen duten 2 instalazio daude, 5.355 Wpico potentziarekin eta 5.355 kWh/urteko produkzio batekin.

LURZORUA

- **Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa.** Udalerrian potentzialki kutsagarriak diren kokapenak 25 dira eta 19,59 hektarea hartzen dituzte. IHOBek emandako datuen arabera, lurzoru kutsatuen gaian Abadiñon eginiko jarduerak 2000-2005 artean 2 izan dira: Abadiñoko Gasolindegian eta Zabortegi-Errauskaiua. Era berean Abadiñoko Gasolindegian 2 ekimen eraman dira aurrera berreskuratu eta kontenzio neurriak ezartzeko.

HONDAKINAK

- **Hiri-hondakinen sorrera.** 2004an Abadiñoko biztanle bakoitzak 1,09 Kg. egunean sortu zituen. 2001-2004 epean etxeko hondakinen sorrera da.eboluzioa.
- **Gaikako bilketak.** 2001-2004 epean, etxeko hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena sortutako hondakin guztien gaikako bilketa eta birziklatzea handitu dira. Bitartean, isurketa modu adierazgarrian jaitsi da denboraldi berean. Horrek guztiak erakusten du hondakinen gaikako bilketan herritarren partaidetza ona izan dela. Kontenedore kopuruak egokiak dira, Hiri-hondakinen Plan Nazionalak ezarritako helburuak betez. Azken 4 urteetan bildu eta birziklatutako kopurua Era nabarmenean handitu da, nahiz eta ontzi arinen gaikako bilketa oraindik baxua den, biltze-sistema hori duela gutxi ezarri baita. Pilen eta bolumen handiko hondakinen gaikako bilketek oso indize moderatuak izan dituzte, baita beheranzko joera ere. Udalerrian 2005eko Irailetik erabilitako etxekoOlioaren bilketa egiten da.

Jardueren ingurumen eragina eta arriskua

- **Industria Jardueren ingurumen eragina.** Eper Euskadi Erregistroaren arabera, Abadiñon EPER Euskadi 2033 Inbentarioan sarturiko 2 enpresa daude (Europako Isurketa Kutsatzaileen Inbentarioa). Aldi berean Eusko Jaurlaritzaren arabera Abadiñoko 5 industria daude "Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoan"

barneratua. Abadiñon, ISO 14001 ziurtagiria duten 10 enpresa daude, eta Ekoscan ziurtagiria duen beste bat

- **Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintzako jardueren eragina.** Inpakturik nabariena koniferen landaketek eta bere esplotazioak eragindakoak dira.
- **Arrisku natural eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa.** Abadiñoko udalak Udal Larialdi Plan bat du, Eusko jaurlaritzak onarturikoa.

Udal egitura eta gizartea

- **Gizartea eta herritarren partaidetza.** Udalerrian zenbait kultur-elkarte dira. Orain arte, Udalak garatutako jardunean ez da herritarren partaidetzarako organo edo tresna egonkorrik, oraintsu Iraunkortasunerako Foroa sortu arren, Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan barne.
- **Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa.** Udalaren partetik ez da ingurumen gaiak sentsibilizatu eta zabaltzeko berariazko jarduerarik, aldizkakoak edo iraunkorrak, garatu, amankomunazgoaren esparruan egindakoak salbu.
- **Udal egitura.** Udal egitura ondoko Batzorde Informatibo hauetan antolatzen da: Emakume Saila, Agintaritza, Osasuna eta Gizarte Ongizatea, Kultura eta kirolak, Mendiak, Ogasuna eta Ura eta Hondakinak. Abadiñoko Udala Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Behargintzan elkaturik dago, eta ondoko hauetan parte hartzen du: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. Aldi berean, honako erakunde hauetan ere parte hartzen du: Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL), Euskal Fondoa, Urkiola-Durangaldeko Landa Garapenerako Elkarte eta Urkiolako Parke Naturaleko Patronatua.

7.2. Ondorioak

Abadiñoko Elizateko udala Durangaldeko eskualdean kokatzen da, eta bertako udalerrri garrantzitsuenetariko bat da, biztanleria kopurua (7.000 biztanletik gora) zein hedadurari dagokionean (36,26 km²). Abadiñoko ezaugarri nagusietako bat gune bakar bat ez izatea da, esandako azalera handi horetan bi gune garrantzitsu aurkitzen baitira, Traña-Matiena auzoa eta Zelaieta auzoa, egtura oso desberdinduarekin. Horiez gain landa izaera duten Amaitermin, Sagasta, Gerediaga, Gaztelua, Urkiola eta Mendiola auzoak aurki ditzakegu.

2005 urtean Abadiñok 7.129 biztanle zituen, azken urteetan eman den etengabeko biztanleriaren hazkundearen ondorio garbia, batez ere bertako biztanleria udalerrian bertan gelditzeko joeragatik, nahiz eta migrazio datuen arabera emigrazioa inmigrazioa baino altuagoa den. Beste udalerrri askotan gertatzen den bezala, eta baita EAEn orokorrean ematen den joera, biztanleriaren zahartzearen arazoa geroz eta larriagoa da. Horrela persona nagusien pisua geroz eta handiagoa da biztanleriaren egituran, gazteen ehunekoak jaisten diren bitartean. Aldi berean adina haztearekin batera emakumeen ehunekoak handitzen dela ikus daiteke, eta horrek sektore honentzako bereziak lirateken politika eta programak aurrera eramatea egokia litzatekela erakusten du.

Iharduera ekonomikoari dagokionean, Industriaren sektorea Abadiñoko sektore nagusia litzateke era nabarmenean, eta horrek bere islada du sortzenden aberastasunean eta bait enpleguan ere, lan erakargarritasun handia duen udalerria izanik. Hala ere, eta eskualdean orokorrean gertatzen den bezala, udalerriko industria metalaren eraldaketa eta automozioaren sektorearen inguruan kontzentratzen da eta dibertsifikazio gutxi du, eta horrek arisku handia suosatzen du merkatuen aldaketa baten aurrean. Aldi berean, azken urtetako langabeziaren eboluzioak langabetutako pertsona kopuruaren beherakada egon dela adierazten du, nahiz eta sortutako enpleguaren kalitate falta salatzen den, tenporalitate etaprekarietate handikoa baita, batez ere gazteen kasuan.

Gizarte zerbitzuen konfigurazioari dagokionean, udalerriko pertsona nagusien egoera eta beharrek ardura sorzen dute, et baita emakumearen egoera familiarrak ere. Nagsien kasuan udalerriak telealarma zerbitzua erabiltzen du, 2003 urtean 8 erabiltzaileek erabilia. Emakumeari dagokonean Abadiñoko Udala emakumearen bedintasun zerbitzu bat du, emakumearen formazio, oientazio eta informaziora bideratua, eta baita ekintza positioko programak eratzera.

Aurrez adierazi den ezala Abadiñoko arazo nagusienetarik bat udalerria osatzen duten bi auzo nagusien arteko banaketa fisikoa da, Zelaieta eta Traña-Matiena. Zelaieta antzinako eraikuntza eta eraikinak eta herri garapen berriak biltzen dituen gunea da, eta bertan Udaletzea edo Kultur-Exea bezalako ekipamenduak biltzen dira, eta Traña-Matiena baino bolumen txikiagoa du. Traña-Matiena batez ere Abadiñoko garapen industrialarekin batea sortutako auzoa da, izaera urbanoagoarekin eta biztanleria kopuru askoz handiagoarekin, eta ondoriosepazio ireki gutxiagorekin. Traña-Matiena gainera bere osotasunean uholde arriskua duen eremu batean kokatua dago (etxebeztzak zein industriaguneak), eta horrek bere etorkizuneko garapenabaldintzatzen du, arrisku hau ezabatzeko ekimenak aurera eramatera behartuz.

Pasadan 2005eko Otsailaren 10ean, Abadiño, Udaleko Osoko Bilkurak 1987ko Otsailen indarrean jarri ziren Arau Subsidiarioen behin behineko berrikusketa onartu zen, eta dokumentu horretan udalerrria etokizunean baldintzatuko duten proiektuak jasotzen ziren, Abiadura Handiko Trena ea Euskotren trenbidearen lurperatzea. Horrela trenbide sarea aldatuko da lurrazpitik doan ardatzari egokituz eta horrela lurrazaleko espazioak irekiz, eta gaur egun sakabanaturik dauden eremuak elkartzea posible eginez. Landa eremuan nekazal erabilerarako lurzorua babestea aurreikusten da, baserriaindarta eta landa auzoen hazkundera bultzatzeko.

Abadiño Durangaldeko eskualdearen barruan zentraltasun handiko puntu bat da, biztane gehien dituzten bi udalerrien erdibidean kokatua, Elorrio eta Durango. Bere iharduera industrial garrantzitsuak egunero merkantzia mugimendu handia egotea eragiten du, batez ere N-634 eta BI-636 errepideetan, baina ezin da ahaztu A-8 Autopista ere udalerriko lurretatik igarotzen dela. Guzti horregatik Abadiño eskalde barneko trafikoaren ohiko pasalekua da, asotan ere arazo puntu garrantzitsua bihurzen delarik. Honek garrantzi handia du herrigunetik igarotzen denean, bates ere Traña-Matienan, erdigunetik zeharkatua baitago. Duela gutxi trafikoa industragunetik BI-636 errepideraino bideratzen duen sahiesbidea ireki da, eta horrek era nabarmenean hobetu du Traña-Matiena auzoko bizilagunen bizi kalitatea. Mugikortasna hobetzeko helburuarekin gaur egun plan bat garatu ahal izateko ikerketa bat egiten ari da.

Udala da Hornidura zerbitzuaren mantenimenduaren arduradun nagusia. Gaur egun goi-sareak duen egoerari buruzko ikerketa eta informe sakon bat egin da, eta bere balorapen ekonomikoa egiten ari da. Behe-sareari dagokionean berriz bere egoera jakiteko ikerketa egiteko dirua 2006 urterako aurrekontuetan sartzea espero da. Momentu honetan ihesak kontrolatzeko kanpainei esker 2005eko hirugarren hiru hilekoan ihesak %23,79 jaitsi dira. Hala ere kontsumoak igotzen jarraitzen dute, etxebizitzaren sektorea ur kontsumitzaile nagusia delarik. Saneamenduaren kudeaketa aldiz Bilbao-Bizkaia Ur Patzuergoarekin hitzartuta dago eta honek egiten du.

Kalitate atmosferiko eta zaratari dagokienez, esan gabe doa oso lotuta daudela industriako jarduera eta Abadiño zirkulazio-intentsitate handiarekin. Nahiz eta Abadiñon EAeko aire-kalitatea zaindu eta kontrolatzeko Sarearen estaziorik ezta herriko zarataren gaineko azterlanik ere ez dagoen, oso naaria da industriari eta udalerrria zeharkatzen duten azpiegitura garrantzitsuei loturik dagoela (A-8 autopista, Euskotren,...), eta baita biztanleek dituzten ohiturei (ibilgailu pribatua erabiltzea, kontsumo ohiturak,...). Energiaren kontsumoa gora doa urtetik urte, eta erantzukizuna industriako jarduerarena da, hein handi batean, udalerrian energia guztiaren %85 kontsumitzen baitu. Gaur egun, Abadiño udalerrian Eguzki bidezko energiari energia berriztagarriak sortzen duten 2 instalazio daude, 5.355 Wpico potentziarekin eta 5.355 kWh/urteko produkzio batekin.

IHOBEk eskainitako "EAeko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioko" datuen arabera, 15/03/06 datan eguneratutakoa, udalerrian potentzialki kutsagarriak diren kokapenak 25 dira eta 19,59 hektarea hartzen dituzte; 19.590m², hain zuzen ere. 1998ko inbentarioaren datuetatik abiatua Abadiño Gasolindegia eta errausketa zabrtegi baten lurzorua ikertu dira. Horren ondorioz Gasolindegia lurzoruen berreskurapena aurrera eraman da.

Hondakinen sorrera eta kudeaketari dagokionean, eboluzioak beheranzko joera bat adierazten digu, berreskurapen indizeak gora egiten duten bitartean. Erabilitako Oloa bezalako bilketa berriek jasoera ona izan dute. Udalerrian industriak duen garrantziagatik 10 dira Hondakin Arrisutsuen aitortpena egiten duten enpresak, eta Inyectametal S.A. eta Fundiciones Garbi S.A. EPER Euskadi 2003 Inbentarioan sartuta daude gai kutsakorran atmosferera isurtzeagatik. Beste Abadiñoako 5 industria daude "Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoan" barneratua.

7.3. Interpretazioak

Interpretazioen azpi kapitulu honi ekiteko helburuz, udal mailan detektatzen diren arazo eta egoera posibleak jorratu nahi izan dugu.

Izurtzako udalerrria Durangaldeko eskualdean biztanleria gehien biltzen duen ardatzean kokatuta dago, Durango – Elorrio ardatza. Ardatz horretan kokatua egoteak ematen dizkio Abadiñori bere abantailarik nagusienak, baina aldi berean baita bere eragozpen garrantzitsuenak, gaur egun zein bere historian zehar. Berez ardatz honetan kokatzeak eragindu bere garaian industria hemen kokatzea eta ondorioz bereinguruan biztanleria konzentratzea, batez ere Traña-Matiena auzoan. Gaur egun emigrazioa inmigrazioa baino altuagoa bada ere udalerrria biztanlerian haziz jarraitzen du, Abadiñon bizi den berezkoa biztanleriaren eraginez. Udalerrriak beste udalerietan bizi den jendearentzako erakargarritasun handia izaten jarraitzen du, enplegu eskaintzagatik eta Zelaieta bezalako eremu erakargarri eta irisgarriengatik.

Abadiñori garrantzia eman dion izaera industrialera ere gaur egun mantentzen da, eta industria da Abadiñoko ekonomia egituratzen duena, udalerriko balio erantsiaren %73,4 sortuz eta aldameneko herrietatik langile kopuru garrantzitsuak erakarriz. Abadiñoko biztanleriaren %48ak sektore honetan egiten du lan, batez ere metalaren eraldaketan eta automozioaren sektorean. Industria hain berezitua egotek etorkizunari begira arrisku handia suposa dezake batez ere merkatuen egungo baldintzak aldatzen badira. Zerbitzuen sektoreak geroz eta garrantzi handiagoa dauka, eta guztiz kontrakoa gertatzen da lehen sektorearen kasuan, oraindik beste ihardueren osagarri giza bakarrik mantentzen baita. Horrelako egoera ikusita normala da langaezia udalerrian arazo larria ez izatea, nahiz eta lanaren prekaritatea ematen dela ikus daitekeen, batez ere gazteen eta emakumeen kasuan.

Gizarte berri guztietan bezala biztanleriaren zahartzea ere errealitate bat da Abadiñon, hau da, gero zeta pertsona nagusi daude bizi itxaropenaren hazkundearen ondorioz. Honi inmigrazioaren hazkundera gehitzen bazaio, lehendik hain nabariak ez ziren gizarte zerbitzu batzuen beharrak azaltzen dira. Horrela oinarrizko errenta, GLLak edo Telealarma zerbitzuak geroz eta ohikoagoak dira, eta aurrekontu indartsuagoak behar dituzte, etab aita sektore hauentzako egokituriko espazioak. Guzti hori etorkizuneko ekimenetan izan beharko da kontutan.

Dena dela etorkizunerako edozein antolakuntza Ibaizabal ibaiaren uholde arriskua ezabatzeari begira egin beharko da, eta baita udalerriko izaera aldatuko duten zenbait obrei itxaron beharko da, Euskotrenen trenbidearen bidea aldatzea adibidez. Arau subsidiarioen azken berrikuntzak, 2005eko Otsailean behin behineko eran onartua, ekimen hauek jasotzen ditu eta udalerrian sortuko diren espazio berriak aprobetxatu eta guneen arteko loturak eratzea planteatzen du (Traña-Matiena, Lebario-Astola eta Zelaieta-Muntsaratz). Baita ere Abadiñok duen berezko aberastasun naturala azpimarratu behar da, udalerriko zati garrantzitsu bat Urkiolako Parke Naturalaren barruan aurkitzen baita, eta honen helburua berau udalerriko patrimonio den heinean kontserbatu eta baloratzea da.

Aurrez esan den bezala udalerrriaren kokapena baita ere bere arlo negatiboak ditu, eta agian

arazorik nabariena udalerrian sortzen diren mugikortasun arazoka izan daitezke. Abadion industria ezartzearen arrazoiatariko bat komunikazio bide nagusiei lotzeko erraztasun aizanda, Bilbo, Gasteiz zein Donostiarantz, etab aita urrunagoko lekuetara A-8 autopista aprobetxatuz. Baina horren ordaina trafiko altua eta mugikortasun arazoak pairatzea izan da, eta bate zere udalerrria saihesten duen bidea eraiki arte, errepide nagusiak Traña-Matiena gunea zeharkatzen baitzuen. Garraio publikoaren eskaintzaz abala da, tren eta autobus zerbitzuak daudelarik, baina hala ere ibilgailu pribatuarenganako dependentzia oso altua da.

Ingurumen bektoreei dagokienean, Traña-Matiena auzoan kokaturiko industriaren eragina ikusten da, atmosferaren kutsadura zein zaratari dagokionean, eta nahiko nabaria egiten da arazo horien inguruko ikerketarik ez dagoen arren. Zelaieta auzoan egoera desberdina da, eta gune honetan bi arlo hauetan eragin gehiago du trafikoak industriek baino. Etengabeko energia kontsumoaren hazkundeak, batez ere industriak eginiko kontsumoa, energia kontsumoa gutxitzeko politika aktiboak aurrera eramatea gomendatzen du, industrian batez ere baina baita biztanleria osoari zuzendutakoak ere. Bere iraganeko jarduerengatik kutsaturik zeuden lurzoruak berreskuratzeko politika aktiboak eraman dira aurrera, eta oraindik aztertu behar diren asko gelditzen dira benetan kutsaturik dauden jakin eta beraien gainean ekiteko. Hondakinen sorreran beherako joera ikusten hasten da, nahi zeta oraindik balore oso altuetaz ari garen, baina aldi berean urtetik urtera gaikako bilketa handitzen doa, batzuetan etxeko erabilitako olio bezalako gai berrietan ere. Udalerriko zenbait enpresek bere jardura edo hondakinen sorreragatik beren hondakinak era berezian tratatu edo informazio sareetara konektatzera behartuta daude, arriskuak murrizteko.